
SAGASTIBERRI
Urruzunotarrak
gehituz
2014

# irakaskuntza ertainetako

# URRUZUNO

## literatura-lehiaketa 2014

LAN SARITUEN BILDUMA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2014

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>.

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2014ko iraila |
| Ale-kopurua: | 1.705 |
| | |
|---|---|
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila |
| | |
|---|---|
| Internet: | www.euskadi.net |
| Prestatzaileak | Iñaki Artola, Miren Jule Azurza,<br>Iñaki Iturain eta Santos Izagirre |
| Azala: | Txapo Creativos S.L. |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Fotokonposizioa eta inprimategia: | R.G.M., S.A.<br>Polígono Igeltzera Pab. A1 bis - 48610 Urduliz-Bizkaia |
| ISBN: | 978-84-457-3078-2 |
| Lege-gordailua: | BI 1.182-2014 |

# AURKIBIDEA

**Hitzaurrea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 7

**Haize-kontra nabigatzen** *Urtzi Urrutikoetxea* . . . . . . . . . . . . . . 11

**Prosa: A maila**

| | | |
|---|---|---|
| Barra ertzeko amets ezkutuak . . . . | *Zuriñe Etxeberria Fernandez* . . | 21 |
| Biolontxeloaren arima . . . . . . . . . | *Nerea Arejita Abaitua* . . . . . . . | 33 |
| Urak papera nola . . . . . . . . . . . . . . | *June Ugalde Pikabea* . . . . . . . . | 41 |
| Heriotzaren hurrengo geltokia . . . | *Ane Lezama Escribano* . . . . . . | 47 |
| Mugatutako gauak . . . . . . . . . . . . | *Eider Urkiola Soraluze* . . . . . . | 55 |
| Letretaraino . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Pablo Calleja Felipe* . . . . . . . . | 65 |

**Prosa: B maila**

| | | |
|---|---|---|
| Oroitzapena . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Nerea Urrestizala Arenaza* . . . | 77 |
| Egunon printzesa . . . . . . . . . . . . . | *Oihane Lopez Lasa* . . . . . . . . . | 87 |
| Faltan bota zaituela . . . . . . . . . . . . | *Ainhoa Gojenola Urrutia* . . . . . | 99 |
| Silueta dantzaria . . . . . . . . . . . . . . | *Irene Cano Sanchez* . . . . . . . . . | 109 |
| Itsasoko uraren gorabeherak bezala | *Karmele Garatea Zaballa* . . . . | 117 |
| Bakardadearen itsasoan . . . . . . . . | *Mikel Bilbao Burgaña* . . . . . . . | 123 |
| Eguzkirik ederrenaren negu usaina | *Maddalen Irigoien Kortabitarte* | 131 |

**Poesia: A maila**


Infernua, konfiantza,
mirariak, denbora eta faltan ..... *Leire Iragorri Litago* ........ 141
Habana, beste herria........... *Mattin Aranburu Guridi* .... 149
Heriotza(k).................. *Peru Iparragirre Albisu* ..... 155
Tik-tak ..................... *Irati Ricon Santoyo*......... 161
Eszeptiko.................... *Iñigo Perez Mujika* ......... 169


**Poesia: B maila**


Odol ....................... *Martin Kortabarria Larrea* .. 177
Ispiluari begirai............... *Maddi Etxeberria Otaegi* ..... 183

**Urruzunotarrak 1986-2014** ...................................... 189

# HITZAURREA

Hogeita zortzi urte bete ditu aurten Urruzuno literatura-lehiaketak, azken urteotako bidetik "Urruzunotarrak gehituz" izenpean egin behar izan badu ere.

Liburu honen azken orrietan duzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrenda. Bostehundik gora dira dagoeneko horrelako "titulua" lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetakoa lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literatura-izenetan. Kimu loratuak dira haiek, irakurle; kimu berriak, liburuan barrena dastatuko dituzunak.

Urtero bezala, berariaz goraipatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Irakasle fin horren lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle berriak sortzeko. Landu, trebatu eta aberastu egin behar izaten da berezko hori.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Edo agian ez duzu oraingoan asmatu zure hori kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai, esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko. Topikoa litzateke orain esatea "saiatu berriro", eta topiko erdiarekin nahikoa da: "saiatu" besterik ez.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu aurtengo epaimahaian:

Castillo Suarez
Urtzi Urrutikoetxea
Leire Bilbao
Miren Agur Meabe
Katixa Agirre

Parte-hartzeari dagokionez, 2014. urte honetan 130 lan jaso dira: A mailan 55 prosan eta 20 poesian; B mailan, berriz, 50 prosan eta 5 poesian; bestalde, parte-hartzaileetako 97 neskak dira eta 33 mutilak.

Dakizuen bezala, ekimenak dituen 20 bikaintasun-aipamenak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna, atal bakoitzean.

Aipamendunek irailean egingo den lau eguneko literatura-egonaldian hartuko dute parte.

*Sagastiberri* sailean epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratzen dira lanak eta liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2014a bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu aipamendunoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Urtzi Urrutikoetxeari.

Liburuko idazleak poztuko dira, irakurle zaren horrek lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakur- eta idatzzaletasuna zure ikasleen artean ugaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere, irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusioaren eta sormenaren ispilutzat hartuz. Euskaltzale, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

**Euskara Zerbitzua**

# HAIZE-KONTRA NABIGATZEN

Urtzi Urrutikoetxea

"Gezurra da Islandian troll eta elfoetan sinesten dugula, baina itxura hori egin behar dugu jendearen ilusioa ez zapuzteko" esan zidan adiskideak. Eta pentsatu nuen euskalduna izatea nekeza dela, baina badirela bere herritartasunaren zama hara-hona eraman behar duten beste batzuk ere. Björk zure herrikide izan arren.

Islandia mendebaldeko Europan sortu zen azken estatua da, duela 70 urte, II. Mundu Gerran Danimarkako metropolia nazien menpe zela, eta uhartean Estatu Batuek base militarra jarri zutela, independentzia aldarrikatu zuten. Egun, biztanleko liburu gehien irakurtzen den munduko herrialdea da. Euskarak dituen hiztunen erdiak baino ez ditu, eta harreman historiko ederra dute gurekin, arrantzaleen istorioen bidez. Islandiarrek ez diote hain eder irizten harremanari, lotsa edo damu puntu batekin ere begiratzen digute euskaldunoi, barkamen eske legez. Oso aspaldiko kontua da: XVII. mendean euskal baleazaleen sarraski bat izan zen uhartearen ipar-mendebaldean. "Baina oso aspaldiko kontuak dira horiek" esan genien. "Baliteke, baina ez gaude ohituta borrero izatera, beti izan

gara galtzaile historian, ez dugu inor zapaldu izan" esan zidan Sjön eleberrigileak. Euskal-islandiar elkarte bateko kidea ere bada, baita Björken zenbait kanturen letren egilea ere.

Horrelako kointzidentziek munduaren txikitasunaz ohartarazten zaituzte, eta istorio unibertsalak edozein txokotakoak izan daitezkeela. Eta gero, ustekabeko loturak sortzen dira. Bazenekiten heavy-metala eta herrialdeen aberastasuna lotzen dituen ikerketa bat ere badagoela? Munduko heavy-metal talde gehien dauden herrialdeetara begira, Finlandia da nagusi, eta Eskandinaviako besteak datoz gero. Iparralde hotzagatik, iragan paganoa, bikingoen harrapakinak, gizarte-eredu tolerantea, ikasketa-maila altua eta musikaren garrantzia... mila motibo azaldu dira, baina hor dago datua.

Berriki Katrin Jakobsdottir Islandiako kultura ministro ohiari egin nion elkarrizketa. Uhartea aspaldiko krisirik gogorrenaren erdian egon zenean, argi izan zuen kulturaren aldeko apustuari eutsi behar zitzaiola. Halaxe azaldu zidan: "2009an, bankarien erruz genituen arazo guztien erdian, argi ikusten genuen kultura maskulino eta epe laburreko horrekin, aberastearen kultura horrek zuela denaren errua. Eta horren aurrean pentsaera pragmatikoagoa behar zen, oinak lurrean, berehalako etorkizunerako izango ez zen estrategia batekin, hurrengo hamarkadetarako gauza egonkor bat eraikitzeko ikuspegiarekin. Gizonak nagusi diren gobernu batean sortzen ez den pentsaera da". Eta argi zeukan hor kulturak zein rol zeukan, ezin zirela berehalako aberastasuna edo turismoa edo arrakasta ekarriko zuten ekimenak soilik diruz babestu, ikerkuntza eta epe-luzeko apustuei ere eutsi behar zitzaiela.

Halaxe egin zuen, hondoa jotako bere herrialdeko gobernuan sartu zenean. Dirutza xahutu berri zen Harpa kultur areto erraldoia amaitzea ebatzi zuen Reykjavik hiriburuan. Ikusgarria da lekua, itsasertzean, baina batez ere, kulturak eta sormenak herri bati aurrera egiten lagun diezaioketela erakusten du. Herritarren topagune garrantzitsu da, erakusketa-gune, kafetegi, Interneteko txoko zein kultura-areto gisa.

Pentsatzen dut ez dela erraza izango horrelako erabakiak hartu behar izatea, zeure adiskideek ere argi ez dutela jakinik. Baina kulturaren aldeko apustua aipatutako filosofia orokor horren zati zen: "gobernu-bilera ilunabarrean eteten nuen, etxera joan, familiarekin afaldu eta gero itzultzeko. Uste dut garrantzitsua dela biak egin ahal izatea. Baina egia da herrialde berezia dela gurea, lasai asko aurki dezakezu lehen ministroa supermerkatuan erosketak egiten".

Pentsatzen dut nire herri idealean ere agintari gorenak supermerkatuko erreskadan topatuko ditudala, eta bizikletaz joango direla beharrera. Eta ziur aski, modako hitz itsusiak utziko ditugu bazter, estrategiko adibidez, edo hegemonia, eta berriz ere gure aurrekoen berba poetikoak imitatzen eta eraldatzen hasiko garela, zakur deslaiak eta malenkonia eta antzekoak esateko.

Badira modan dauden hitzak, eta modaz kanpo geratzen dira. Badira irakurriaz bat aro bat, sasoi bat oroitarazten dizutenak eta badira joan zen garairen bat oroitarazten dizuten berbak. Entzun eta berehala iraganeko leku batera, memoriaren txoko bihurri horretara eroaten zaituzten kontzeptuak dira. Estrategiko hitza estrategiarekin lotzen

genuen, noski, taktikaz haratago, unean unekoaren oinarrian zegoena nabarmentzeko. Baina funtsean, oso oso oso garrantzitsua den zerbaiti buruz ari ginela adierazteko esaten genuen estrategiko. Super inportantea esango genuen, eta estrategiko idatzi. Badakizue, hor sartzen da industria, enpresa bat izan daiteke, edo ekintza zehatz bat. Izan daiteke erakunde batek, talde batek, elkarte batek edo beste edonork hartutako erabakia, kirolean edo politikan.

Kulturan, liburugintzan, literaturan ere badira oso garrantzitsuak diren gauzak. Islandian zein Eskandinaviako herrialdeetan, munduan bizi-maila onena ei duten herrialde horietan, badakite urtetan eraiki duten kultur esparruak oinarri sendoak behar dituela, hezkuntzatik hasita. Utziko didazu munduko urruzunotar ospetsuenari paragrafo hau ebasten:

"Sarituen zerrendari begiratu besterik ez dago Urruzuno zer harrobi izan den jakiteko. Sarituetako askok jarraitu dute, aldez edo moldez, literatura, itzulpengintza edo bertsolaritzari lotuta, eta beste askok, kultur kudeaketa eta kazetaritzatik gertu. Geure nerabezaroko gertaera garrantzitsu bezala oroitzen dugu, behin urruzunotar izan ginenok. Boutadea barkatzen badidazue, atzera begiratuta, Urruzuno sariketa garrantzitsuagoa izan zen niretzat Euskadi Saria baino".

Bai, Harkaitz Canok 2012an idatzi zuen hori, lehiaketa kinka larrian zegoen hartan. Geroztik biziraun du, nolabait, eta aurten ere hogei lagun bilduko zarete. Duela urte gutxi egokitu zitzaidan hitzaurrean aipatzen nuen Urruzunoren garrantzia. Beste urruzunotar batzuekin berbetan, antzeratsu bizi dute oroitzapen hura, garena izateko mugarri legez. Funtsean, literaturaren itsasoetan nabiga-

tzerakoan, Hornos lurmuturra igarotzeak uzten du markarik, ematen du arrakada eskegitzeko eskubiderik. Baina lehorra utzi eta lehenengoz itsasoratu zinenekoak uzten du zinezko arrastoa. Geroko balentrietako eskifaia baino hobeto gogoratu ohi dira lehen nabigazio hartan bidaide izan zenituenak.

Iaz Islandiako itsas-bazterreraino egin nuen bidaia, mundu osoko berrehun idazlerekin bat egiteko, literaturaz berba egin, adierazpen askatasunaz eztabaidatu eta heavy-metala ere entzuteko. PEN elkartetik egin genuen bide hura, besteak beste, idazle gazteak hauspotzeko ahalegin berezian dihardduen nazioarteko erakundetik. Hego Afrikako ikasle baten ipuina saritu zuten iaz.

Eta atzera begira, pentsatzen dut PENen egin dugun bide hori, duela hamar urte Euskal Herrian sortu zenetik -munduan zehar ia ehun urte dituen elkartea da- nekez egingo genuela, beharrezkoen zen unean bultzadarik jaso ezean. Islandiatik ez hain urrun ere, Irlandan.

Artean jaio gabeak zineten, Urruzuno lehiaketa azkenez irabazi eta Irlandara bidaia hura egin nuenean. Baditu ia hogei urte. Handik hiru urtera argitaratu nuen lehen liburua. Urruzuno saria lehen aldiz irabazi nuenetik zazpi urtera. Eta sinets iezadazue, argi eta garbi: Urruzunorik gabe nekez egongo zen Susa argitaletxeko lagunek hain abegikor irakurri eta landuta argitaratzeko beta eman zidaten lan hura.

Lehiaketa guztien puntu bidegabea aintzat hartuta ere -epaimahaian dihardugunon irizpideak subjektiboak dira beti, asmatu genuen batzuetan, beste batzuetan ez-, Urruzunon zabiltzatenok jakizue badaukazuela soka luze

bateko segida izatearen zoria. Inoizko sasoirik okerrenean, beharbada, denborak esango du, eta zuek ere, denboraren distantziatik aztertuko duzue zein arrasto utzi dizuen.

Badira, noski, Urruzunon parte hartu eta gerora literaturatik oso urruneko bidea hartu dutenak. Badira Urruzunoren berri izan gabe ere betiko literaturzaletasunetik idatzi eta euskal letren plazara datozenak. Baina urruzunotarren soka luzeari begiratuta, zenbat eta zenbat idazle, kazetari, bertsolari, kulturgile eta bestelako plazandre eta plazagizon dagoen!

Itxura hori eman badezake ere, ez naiz ari esaten inolako zerrenda esklusiboa osatzen duenik. Ehunka lagunen izenak egoteak dauka, ziur aski, balio handiena.

2012tik Urruzuno beste zerbait da, iazko irabazleek badakizue hori. Desagertzeko aukera guztiak zituenean iraun ahal izatea izan zen zerbait, nahiz eta ordura arteko Europako bidaiaz gozatu zuenarentzat ez den kontsolagarri izango. Jakin dugu Europan barna 80ko hamarkadatik piztu izan genuen izpiritu hori bizi-bizirik dela Aubixan ere, eta pozten gaitu horrek.

Zuek, gazteok, dagokizuena egin duzue, bikain egin ere. Helduenen arloa da kale egin duena. Eta urruzunotar beteranoenok, zein zerrenda eder honetara lehen aldiz iritsi zaretenok, argi esan beharko dugu bankuak bihar ere erreskatatu ahalko direla, baina gure hizkuntzak eta gure literaturak orain eta hemen behar dutela babesa.

Haizea aurka izanda ere, segi nabigatzen.

# PROSA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Barra ertzeko amets ezkutuak

Zuriñe Etxeberria Fernandez
Xabier Zubiri-Manteo institutua
Donostia

Betetzen joan da taberna, guztiz bete ere. Joan-etorriak usaindu egiten dira, baita jendearen kezka eta arazo itoak ere. Sekula aitortzen ez diren kezka eta arazo horiek. Musikak, haizeak hostoekin egiten duen modura, jendearen gorputzak mugitzen ditu arin bezain poliki, bortizki zein goxoki. Modu erakargarri nahiz modu ez hain erakargarri batean. Zerbitzarien dantzak ere hasiak dira, erritmoz kanpokoak, bezeroenak baino lasterragoak. Alkohol usainak estali du giroa eta honen eraginak bilakatuko ditu pertsonaiak pertsona, sortu eta asmatu egin duten bigarren bizitza desagerraraziz. Larunbata iritsi da, kale kantoiko taberna ezkutura.

Urruneko mahai ilun batean, neskatxa-zahar-emaztegazte bat dago eserita. Tabernaren sinpletasunarekin bat egiten ez duten jantzi garestiegiak daramatza. Edalontzi erdi hutsa heltzen dute bere adina ezkutatu ezin duten eskuek. Irri maltzurra margotu zaio ezpainetan, ingurukoak lotsa eragingo balio bezala. Begiek, aldiz, gorrotoa islatzen dute: barregarrien artean, bera ere barregarri agertzen da, ezpainetako garesti atzean. Izan nahi duen emazte mo-

dura mozorrotu da. Sekula izango ez den emazte. Aukeran, itxura baino bihotza zaindu beharko luke.

Barra bazterrean bikote bat ageri da, irribarretsu. Neskaren behatzek mutilaren lepoa laztantzen dute, eta ezpainek muxu bat eskatu diote, eta haren ametsek gau amaigabea oihukatzen dute ixilean. Entzun egiten den ixiltasunean. Gor uzten duen ixiltasunean. Mutil ile horiaren begiradak, berriz, soineko finari desagertzeko eskatzen dion bitartean, diskreziorik gabe, ez eta diskreziorik edukitzeko asmorik gabe. Bere gorputzak neska inuzentearena erregutzen du oihuka. Mutil gaztearen begietan ez da damurik islatzen, emaztea eta umeak etxean utzi dituen arren. Neska gaztearen begietan ez da susmo txarrik irakurtzen. Honek eroki maitatu nahi du —inozentzia osoz—, mutilak eroki sentitu behar duen bitartean, damu tantarik isuri gabe. Plazera eragiten duten tantak besterik ez zituen isuri gau hartan. Baina ez gau osoa zain etxean esna pasa duen bere seme-alaben amaren plazera. Inozentziaren plazera baizik. Gero min jasangaitza ekarriko duen plazera.

Taberna erdian, alkohol tanta artean itota, neskatxa bat dago dantzan. Gazteegia ematen du bertan egoteko, ahulegia hainbeste istorio ikusezinen artean murgiltzeko. Jantzita daraman gona motzegia dantzan ari da musikako notekin batera, gora eta behera ibiliz: gora mugitzen denean, gehiegi altxatuz, eta behera mugitzen denean, ez bere aitari gustatuko litzaiokeen adina jaitsiz. Momentu hartan ikusiko balu… Ile nahasiak estaltzen dio aurpegia, eta burua altxatzen duen bakoitzean, begi beltzek salatzen dute antzerki horren arrazoia: mutilarekin zeukan harremana bukatu egin da. Margotuta dauden begiak. Berez begirada batek duen

edertasuna ikusten uzten ez zuen moduan zituen margotuta. Beltz ilunez. Margo beltzak eta begirada goibelak belztasuna areagotzen zuen. Beltz ilun-ilunez. Inoiz beltz argia izan ez dena. Ez du pentsatu nahi; baina hori bera da gehiago pentsatzera bultzatzen duena. Ez, ez du sinetsi nahi. Oraindik inork benetan paperean deskribatu izan ez duen horixe sentitu du. Berak sentitu duena olerki guztiek eta maitasun kanta guztiek kontatzen dutena baino askoz ere handiagoa izan da. Hain handia non ez den bihotzean sartu. Hain handia non bihotzean sartzen ez zen maitasunak hau urratu duen. Mila zatitan hautsi duen. Mila eta bat zatitan. Orain ez da gai sentitzen aurrera egiteko, eta ihes egitea da bizitzari aurre egiteko modu bakarra.

Kanpoan, baina atetik gehiegi urrundu gabe, bi gizon daude. Haien eskuak presarekin mugitzen dira, gaueko auskalo zenbatgarren kanutoa erretzeko. Kontua ateratzen saiatzea alferrikako lana litzateke. Eta dirudienez, taberna hartan inork ez du indarrik ingurukoaz jabetzeko. Nahikoa daukate beren buruaz jabetzearekin. Nahikoa eta sobera. Hala ere, bertako jendeak osatzen duen koadroak, preseski, frogatzen du ez direla gai haien buruaz jabetzeko ere. Bi gizonak elkarrizketa mutuan ari dira: begiradaz, esku trebeen mugimenduez, zurrupadaz. Kez betetako elkarrizketa. Sakona oso. Irribarre lausoan pausatzen dute kanutoa arin, poliki erretzen dute, behatzek gogor heltzen dute; eta bukatzen doan heinean, polikiago irensten dute kea. Ordularia gelditu nahi balute bezala, edo kanutoa amaigabe bihurtu nahian, akaso. Bi aukera ezinezko edozein kasutan. Haien ingurua irudimena besterik ez da, burutazioak besterik ez dira. Taberna berean daude, ordu berean. Baina haiek urruti daude oso, hegan. Zeru urdinean, ekaitzik aurreikusten ez duen mehatxurik

gabe. Hegan, haizea alde dutela. Arazo bana piztu dute beste hainbat itzaltzeko. Arazo bakarra itzaliko zaie, beste hainbeste pizteko.

Beste mutil bat dago atzealdeko mahaietan eserita. Indartsua dela antzematen zaio begiradan, eta indar hori erabiltzera ez bultzatzeko gomendioa irakurtzen zaio begietan. Altua da, sendoa. Bere atzean emakume bat dago, gizon haren itzala besterik ez dena. Emakume ederra da, oso. Barrutik kanpotik baino gehiago, izan badaiteke. Arretatsu entzuten ditu gizonaren hitzak, benetan ulertu gabe. Adi begiratzen ditu gizonaren keinuak, benetan ikusi gabe. Irri ezin politagoa da berea. Benetakoa, erreala. Atzean mila malko ezkutatzen dituena. Goxoki ferekatzen du sabela, usutan. Barruan daraman bizitzak ematen dio bizitza berari. Barruan daraman neska ttikiak bilakatzen du pertsona. Deskribaezina den eta ama batek soilik ulertu dezakeen sentimendua. Handia oso. Ama gaztearen bihotza bezalakoa. Eta ama gaztearen infernua bezalakoa ere bai. Makillaje kapa ugari gainjarri behar izan ditu, parean duen gizonak emandako kolpeak ezkutatzeko. Bere alabatxoaren aitak. Katixa deituko da. Bai, Katixa. Ze izen goxoa. Zein polita den ahoskatzea. Katixa. Bai, maitea, egon zaitez geldirik, arren, amatxori min ematen diozu eta. Katixa, sekula jaioko ez den neska. Bere amaren ametsetan bere altzoan soilik eseriko den umea. Aitaren kolpe batek hilko du jaiotzeko astirik eman gabe. Ametsetan soilik kantatuko dio, Katixaren begiak itxi arte. Orduan, kolpe- ostikada-mehatxu-irainek ez dute minik emango. Laztanen antzera jasoko ditu amak. Sekula ama izango ez den amatxok.

Kostata, baina komunetatik irteten ari da gazte bat. Galtza azpian daramatzan galtzontziloak osoki ikusten zaizkiola erabat ahaztuta. Amak erosi zizkion galtzontziloak,

hemezortzi urte bete zituen egunean. Heldu bilakatu berri zen umeak ez zuen adorerik izan esateko horrelako arropa intimoa betirako izango zela intimoa. Nola esan amari modaz pasata zegoela? Zaharkituegia, neska moderno baten bihotza konkistatu ahal izateko. Bihotza edo hankartea. Ze inporta du horrek. Bazuen gogoa, bai, txortan egiteko. Amak oparitutako galtzontziloak ziren muga baina. Agian ama bera oztopo, galtzontziloak baino gehiago. Baina, edozein kasutan, ahaztu zitzaion ekintzarako hauek kentzen direla. Neska moderno batentzat garrantzi handiagoa izaten duela barrukoak. Irribarre ezabaezina dauka itsatsita aurpegian. Sekula sentitu ez duen zirrara piztu zaio barrenean, edozeri aurre egiteko prest sentitzen da, ezerk ez dauka garrantzirik. Ez momentu hartan behintzat. Gurasoekin dituen liskarrek eta goitik behera menperatzen duten ikasketek ez dute batere garrantzirik. Gurasoek ez dute ulertzen, ez eta berak gurasoak ere. Ez dute jada hitz egiten, elkarri hamaika min aurpegiratzeko ez bada. Umeegia da gaztea, gurasoegi gurasoak. Haien harremanak ez du malgutasunik ezagutzen, ez eta maitasun izpirik ere. Liburuek, berriz, bizitza sozialetik aldendu dute. Zentzugabekeriak besterik esaten ez dituzten liburuak erre nahi lituzke, desagerrarazi. Zenbaki eta formulak burutik atera. Bere sentimenduak adierazteko gai ez diren kalkulu eta formula baldar horiek. Hori ahazteko modu bat aurkitu du: botila artean itotzea. Ez da ezeren beldur. Ez da ahul sentitzen. Bihar bestelako eguna izango da.

Laida lanpetuta dabil, gaur ere bai. Larunbat gauak gorroto ditu. Taberna gainezka egoten da, eta ez du gustuko mozkor haien ikusgarri izan behar izatea. Ikusle izatea, tira, umore onez badago, onartu eta dena egiten du; baina antzerki hartan parte hartu behar izatea ez du sekula

onartu. Ez eta onartuko ere. Horregatik jartzen du hain urduri gau osoa barran berari begira pasatzen duen gizonak. Begirada deseroso hark zerbitzari trebearen mugimenduak oztopatzen ditu. Baina Laidak dirua behar du: Laidak estudiatu nahi du nor izan ahal izateko. Hankak itxi eta pentsamenduak irekiz. Dirua beste era batera irabaztea erabaki zuenetik pertsona berria da, beste bat da. Atzean gelditu dira zintzatu gabeko muki txuriak, atzean gelditu dira maitasun ordainduak. Orain bera da bere lankide Gorkaren gorputza dastatzeko ordainduko lukeena. Dena emango luke haren muxu baten truk. Erabat biluzteko prest legoke bere aurrean. Arropa guztiaz gain, pertsonalitatea ere erantziko luke. Pertsonalitatea eta duintasuna. Gelditzen zaion duintasun apur hori.

Barrako aulki batean eserita, gizon bat aurkitzen da. Aurkitzen dela esatea, hitz egiteko modu anker bat besterik ez da, aurkitu baino gehiago galtzen dela esan behar bailitzateke. Ametsetan galtzen. Barra erdia bere edalontzi hutsek betetzen dute. Begirada distraitua daukala ematen duen arren, Laida zerbitzariarekin amesten ari da. Antzerki hartako protagonista izatea inolaz ere onartzen ez duen Laida. Urduri jartzen den Laida. Harekin hitz egiteko modu bakarra edaten jarraitzea da. Ez eta hori ere, bi hitz besterik ez baitira partekatzen dituztenak. Baina, edanez behintzat, zerbitzaria begiratzen jarraitu dezake harroputz baten gisan, bere hezurrengatik urtzen dela salatu gabe. Edo hori uste du behintzat. Alkandora irekita darama, beroarengatik beharbada, zerbitzari gaztearen begirada bereganatzeko seguru aski. Eta bereganatzea lortzen du; baina ez berari gustatuko litzaiokeen moduan. Begi galdu horien atzean, maitasuna ezkutatzen da, baina bihotzean ziztada ematen duen maitasuna. Kikiltzen duen maitasuna.

Erotzen eta gaixotzen duen maitasuna. Debekaturik egon beharko lukeen maitasuna. Maitasunaren atzean, esperantza eta ezinegona. Amets eroek betetzen dizkiote pentsamenduak. Amets eroak izango liratekeenak Laidarentzat behintzat, baina amets ezin politagoak direnak gizonarentzat. Politak eta mingarriak aldi berean. Balantza batean jarriz gero, politak baino pixka bat mingarriagoak izango liratekeenak. Pixka bat bada ere. Edo erdizka. Edo asko. Edo gehiegi. Laidari begira egongo litzateke luzaz, Laidari begira bizitzeko prest legoke, eta bizitza bat motz geldituko litzaioke. Burua galtzen hasi da, eta burua galtzen bukatu du. Bai, burua galdu du zuzenean.

Ken Zazpiren "Ilargia" abestiak ixildu du oihua. "Zuretzat ilargia lapurtuko nuke gauero".

Emazte gaztea bere aulkitik altxatu da. Ez du, jada, antzezten jarraitzeko gogorik. Gorrotoz beteriko irribarrea ezabatu zaio, eta edariarekin ezpainetakoa ere ezabatu zaio. "Resistente a la bebida y a los besos" lelopean erosi zuen ezpainetakoa. Edaria behintzat ez du jasan, argi dago ezetz. Ezabatu zaio ingurukoak eragiten zion lotsa, bera ere inguruaren parte baita. Orain lotsa bere buruak berak eragiten dio.

Bikote gaztea komunetik atera da. Mutilak gelditzen zaion azken zigarroari azken zurrupada eman eta itzali egin du lurrera botaz eta hankarekin zapalduz. Tabernako atetik atera da, atzera begiratu gabe. Baliteke bat-batean familia bat daukala gogoratzeak presa sartu izana. Baliteke ere behin gosea kenduta, kontzientziak zer pentsatu eman izana. Kontzientzia edukitzekotan, noski. Edo baliteke helburua bete eta hortik atera nahi izana, besterik gabe.

Justifikaziorik gabe, beharrezkoak ez diren hitzak gabe, telefono zenbakia trukatu gabe, azken irribarre bat bera ere gabe. Atzean gelditu da neska, begiak bustita, zutik, taberna erdian bakarrik. Abesti madarikatuaren hitzak ezabatu nahi ditu. Ihes egin dio inozentziak… "Ez zara gaueko izar bakarra… nananananananana". Bai, gaueko izar bakarra da gaur beretzat. Zeruak mugarik ez daukala ikasiko duen arte.

Gazteegia zen neskatxak, aldi berean, ingurura begiratu du lotsatuta. Malkoak lehortu ditu, gona motzegia jaisten saiatu da, eta korrika atera da tabernatik. Leku hartatik alde egin nahi du. Desagertu nahi du, lurrak irenstea gustatuko litzaioke momentu horietan. Errealitateari ihes egin dio, berriz ere. Horrekin nahikoa ez eta bere buruarengandik ere ihes egingo luke ahal izango balu.

Kanutoak itzali dira, eta poltsikoak hustu. Bukatu da gaurko, ezin da gehiago erre. Ostikada bat eman dio bietako batek inguruan zegoen zakarrontziari. Hegalak moztu dizkiete, trumoiak entzuten dira eta haizea aurkako norabidean doa. Begi itxiek ez dute ikusi nahi. Itsutu dira ez ikusteko. Eta ah, ze itsua! Eskuak poltsikoan sartu dituzte eta noraezean alde egin dute, hitzik gabeko elkarrizketan, oraingo honetan ere. Begirada, esku trebe, zurrupada eta kerik gabeko elkarrizketa. Min egiten duen elkarrizketa mutua aldi honetan.

Etxera abiatu dira gizona, bere itzala eta Katixa. Itzala behar ei du gizon horrek eguzkirik ez dagoen arren. Ez du etxeraino iritsi behar izan lehen kolpea emateko, mozkorrak aurrea hartu dio. Portalean izan da lehenengoa. Tripan. Sabelean. Katixa, maitea. Inoiz baino gogorragoak izan dira. Gaur bihotzean eman dute mina. Lehenengo, bat

eta, gero, bestea, eta bestea eta bestea eta beste hainbeste, amaigabe. Negar egin du amak, negar egin du Katixak. Bihotza, beti maiteko zaitut. Katixa, nire Katixa. Auzokoek gaur ere ez dute oihurik, negarrik —irainik— entzun. “PUTA”. Zein erosoa den ignorantzia.

Beldur barik sentitzen zen mutil gaztea mahai batean eserita dago. Iritsi zaio biharamuna. Eta ez da oso eguzkitsu iritsi. Arazo guztiek zapaldu dute berriz haren poza. Esku artean utzi du erortzen burua. Buruko mina gutxienekoa da. Asmatu dezatela behingoz zientzialari bikain hauek bihotz-mina sendatzeko aspirina. Botila artean ito zaio ausardia, eta gauean zehar edan dituen txupito guztietan. Zazpi, zortzi, bederatzi, hamar, akaso? Buruko min jasanezinak oroitarazi dio behar baino pare bat gehiago izan direla. Pare bat gehiago gutxienez.

Azken edalontziak garbitzen ari da Laida. Erratza pasatzen ari da Gorka. Hiru metrora daude, baina zein handia egiten zaion distantzia! Batzuk, kilometrotara izan arren, bihotzetik gertu; besteak, berriz, ondo-ondoan eta hain urruti. Ondoan eta urrun sentituz. Munduaren beste puntan baino haratago. Irribarre batekin agurtu du Gorkak Laida. Azken honek begiradarekin jarraitu du mutila. Bikotea dago Gorkaren zain, atean. Elkarri eman dioten muxuak mendeku nahia piztu du Laidarengan. Zertaz mendekatu ordea? Zergatik sentitzen du bere, berea ez den zerbait? Eta berea sekula izango ez den zerbait?

Barrako gizon bakartia abesten ari da: “Une baten sinesteko ez garen guztia”. Hark ez du Laidarengatik ilargia lapurtuko gauero, tabernako botila guztiak edango ditu Laidarengatik gauero. Argiak itzali dira. Itzali. Tabernakoak, baita bihotzean sekula piztu ez direnak ere.

Ezabatu da azken irria; isuri da azken malkoa; ihes egin dute lotsaren azken tantek, arrapaladan; itzali da ausardia, eta ixildu da abestia. Taberna husten joan da. Osoki hustu ere.

# Biolontxeloaren arima

Nerea Arejita Abaitua
Gernika institutua
Gernika-Lumo

Elurra mara-mara ari zuen neguko arratsalde ilunean eman nuen lehenengo “re” lotsati eta dardaratsua. Barnean zirrara ikaragarriak astindu zuen nire arima. Une horretan, gizakiena ez bezala ikus daitekeen biolontxeloaren arimak, estalki bien artean zubiaren azpian kokatutako zurezko zutabetxo horrek, eztanda egin zuen iluntasuna egunsenti bihurtuz. Johann Steiner “luthierrak” amaitu berria zuen lanari maitekiro egin zion so. Gizonaren aurpegiaren zimurretan zehar azken garaian jasandako nekeak ikus zitezkeen. Azken enkargua izango nintzen esku trebedun biolontxelogile bizar-zuriarentzat, berak bidaiarako prest zegoen kotxe barruan eztiki laga ninduenean susmatzen ez zuen arren.

---

Artega hasi nuen zuriz tindatutako Salzburgotik Berlinerako bidea, jabea izango zena ezagutzeko irrikan. Berlineko etxe dotoreenetarikoaren aurrean gelditu ginen, August Goldman bankariaren gotorlekuan. Laster jakin nuen Berlineko orkestran jotzen zuen Leopold seme nagusiarentzako oparia nintzela. Adiurre oneko gazte sentibera ho-

rrek beso zabalik hartu ninduen eta, nire zokoa izango zen egongelako bazter pribilegiatu horretan, tinko baina gozotasunez, lehenengo melodiak atera zituen nire muinetik.

Hurrengo urteak esne-mamitan igaro nituen, guztiek miretsia eta maitatua, belusa eta zeta lagun. Arthur Nikisch-en zuzendaritzapean Europako eszenatokirik garrantzitsuenetan jo genuen: Suitza, Belgika, Frantzia, Italia, Espainia… 1913. urtean, historiako lehen aldiz, sinfonia oso baten grabazioa egin genuen, Beethovenen Bosgarrena. Leopoldek, bitartean, txikitatik bizi izandako zorioneko burbuilan jarraitzen zuen, emazte xarmangarria, aingerutxo ilehoria eta hirurok ondoan gintuelarik.

1914an egoera erabat aldatu zen gerraren gainjantzi beltzak Europa osoa estaliz. Kontzertuak gero eta urriagoak ziren; giroa, gero eta goibelagoa. Leopoldek etxea kartzelatzat hartzen zuen eta nirekin emandako orduak gero eta bakanagoak ziren… Urte latzak. Behin eta berriz pairatu behar izan nuen bere ahulezia, bere tristura. Musikaria Alemaniarekin batera itzaltzen zen, ahaztutako baselizen kandelen antzera. Isiltasunaren erreinuan ahalegintzen nintzen nire muinetik nota koloretsuak ateratzen, eraikitako melodiek lagunaren eta Alemaniaren bihotzak bete zitzaten.

Leopold Alemania suntsituaren 1918ko negu zurian hil zen biriketakoak jota, nire arima ikatz koloreko kapela jantziz.

Garai latzak eta amaiezinak izan ziren haiek. Hasierako urrezko zokoa soto bilakatu zen iluntasuna egongelaz jabetu zenean; jesarlekuak eta leihoak estaltzen zituzten oihal higatuak antzinako belusen eta zeten arrastoak baino ez ziren.

Egurrezko hezurrak zurrunduta geratu zitzaizkidan; kordak eta arkuko ileak zimel, lorontzi ahaztutako loreen antzera. Bakardade gorria ezagutu nuen, Leopolden emaztearen aldizkako fereka lagun bakarra nuelarik. Ez nintzen kikildu baina. Denboraz, malko iharrek atsekabez eginiko ernegazioari eman zioten pauso. Leopolden umea, Walter, nerabe, eta nerabea biolontxelo-jole gaztea egingo zela amestea izan zen bakardadearen aurka egiteko arrazoi bakarra.

---

Hautsez betetako hogei urte luzeak amaitu ziren. Gazte zurbila urduri hurbildu zitzaidan, hautsa iraganeko mamuekin batera uxatu nahian. Arkua eta kordak tenkatu eta atera zizkidan doinuek antzinako garaietako oroitzapenak ekarri zizkidaten gogora. Nire poza laster lausotu zen baina. Aitak besteko trebezia eta sentikortasuna bazeukan ere, Walter tristeziaz inguraturik zegoen. Ez ginen inoiz kanpora jotzen joan, ezta entzunaldi batera ere. Ilunpean ematen zituen egunak, gortina atzetik kalera begira. Kale nagusiko erakusleiho eta ateetan “Judu zikinak” idatzitako karteltxoak agertzen ziren han-hemenka.

Walterrek eta amak zeukaten guztia maleta txiki eta urratu bitan sartzen zen. Maletatxoak mailadi azpian zegoen ezkutuko armairuan utzi zituzten, itxaroten.

1940ko udazkeneko ilunsentian, lehenengo aldiz urte askotan, igarri nuen hozkirria nire egurretan. Ataria itxi zutenean ezin nezakeen imajina bizitzan ezagututako etxe bakar horretara ez nintzela itzuliko.

Leku ezezagunera iritsi ginen. Auzo pobrea zen, hiriguneko etxeen dotoreziaren arrastorik ez. Kale amaierako

etxe apal batean eskailera meharretan gora egin genuen, nekez joan zitezkeen ama-semeak elkarren ondoan. Ezkaratzean aurkitu genuen familia poloniarra atsegina zen: gurasoak, ume koxkor bi eta Sofia neskatxa bizia eta liraina. Walterren eta amaren begietan tristura isila islatzen zen, zerbait txarra gertatuko zen seinale. Arima uzkurtu egin zitzaidan, diru apurra gogor hartuta atzera begiratu gabe alde egin zutenean. Jendez inguratuta nengoen, baina babesgabe ikusten nuen neure burua.

Hurrengo hilabeteak ez ziren errazak izan. Luzaroan isiltasunera ohituta, bazkalondo eta afalondoko berriketaldi zalapartatsuek piztu beharrean, tristatu egiten ninduten. Non ote zeuden nire familia zirenak?

Sofia biolontxelo-jole aparta zen, bazekien nire arimatik onena ateratzen. Familiaren itxaropen osoa bere musikan zegoen; nitaz berbetan entzun zutenean ez zuten duda izpirik ere izan eta urteetan gogor lan egin ostean lortutako aurrezkiak erabili zituzten hiriko biolontxelorik onena omen nintzen hau erosteko. Hans Müller irakaslearengana joaten ginen astean birritan perfekzioaren bila. Hans Europako musikaririk onenetarikoa zen, baina arazo politikoak zirela-eta erdi ezkutatuta zebilen. Momentu hartan Sofia zen errealitatetik alde egiteko zeukan bide bakarra eta horretan jartzen zituen gelditzen zitzaizkion indar guztiak.

Arratsalde hartan etxera heldu bezain laster jabetu ginen isiltasunaz. Nahiz eta guztiak mahai inguruan egon, inork ez zuen txintik ere esaten. Aitak nekatuta eta goibel ematen zuen; mutilak, bat-batean, hain ikaratuta zeudenez, askoz txikiagoak iruditu zitzaizkidan. Amaren begi malkoetan izua eta tristura ikus nitzakeen. Aitak zurrumurruan egin zion berba Sofiari:

-Walter eta Goldman andrea Auschwitzen daude.

---

Minutuak ordu bihurtuta, orduak egun... Egunak amaiezinak ziren 1944ko udaberri hartan. Etxean denak mugitzen ziren pauso isilaz, geldoaz, hitz egin beharrean begiradekin mintzatuz. Sofia gauerdian altxatzen zen nigana hurbiltzeko, eta han, sutondoan, gauero ematen zion negarrari estu-estu besarkatzen ninduen bitartean.

Arratsalde astun batean Hans Müllerren deia jaso zuen. Bere etxerantz abiatu ginen presarik gabe, normaltasun itxura emateearren.

# Urak papera nola

June Ugalde Pikabea
Koldo Mitxelena  institutua
Errenteria

Eguzkiari ez zitzaion argi ahul gorrizta bat uzteko kemen apurra besterik geratzen, eraikin altuak silueta huts bihurtzen zituen une hartan. Irrikak eta erronkek blaituriko bi begirada zetozen jolasean autobusaren atzealdeko eserlekuren batean. Inoren begiradarik jaso gabe ibiliko ziren kaleetan habia berri bat zuten eraikitzeke.

Motxilak bizkarrean hartu eta eskutik helduta igo zituzten autobus geltokitik kalerainoko eskailerak. Ostegun iluntzea zen jendetzak eta presak itotako hiri kosmopolitako etorbidean. Manta potolopean ezkutaturiko gorputz uzkurrak garagardo litroak goxatuko zituelakoan. Belarritako handidun emakumeak takoien gainean, lepoa tente. Isilik zihoan bikotea eta eskuak oraindik ere estuago helduta egin zuten hirigunerainoko bidea, arroztasunak irensteko beldurra konpartitu nahian edo, urtarrileko hotz hezurretarainokoa ia sumatu ere egiten ez zutelarik.

Ostatuko ohean etzan eta ezezaguna mitifikatzeko ohiturari uko egin gabe asmo berriez aritu ziren luze, gortina likatsuek kanutoaren kea erabat zurrupatu zuten arte.

Gelaxka hartan eman zuten astebete eskasean burubelarri jardun ziren lan bila. Goizean goiz ateratzen ziren bertatik eta, elkarri muxu emanda, bakoitzak bere bideari ekiten zion. Bazkal orduan negozioen jabeen lehorkeria eta lan aukera bakanen bat izaten zituzten mintzagai. Ohe bat, komuna eta sukaldea ahalbidetzen zizkien edozer zen baleko. Hirugarren egunerako, Telmo enpresa bateko mandataria zen. Lan egonkor baten zain egoteko inolako intentziorik gabe hartu zuten apartamentu hura hiriaren kanpoaldean. Gauzak hobetzen bazihoazen ere, atzean utzi behar izan zutenaren burujatea etengabea zen bien buruan, Mariarenean batez ere. Etxekoei agur esan gabe alde egin izanak barrena jaten zion.

Telmo goiz irteten zen eta gauera arte ez zen etxeratzen. Mariak marrazten pasatzen zituen goizak. Pentsamendu gris guztiak papereratu eta koloreztatu egiten zituen. Elkarrekin pasatzen zuten denbora apurrean lana ez zuten ia aipatu ere egiten, Telmok etxeko atea irekitzen zuen momentua kezkak alboratzeko garaia baitzen. Aurrezkiak bukatzen ari zitzaizkien, ordea, eta Telmoren mandatuek ezin zuten hileroko alokairuaren erdia ere ordaindu. Iritsi eta bi hilabetera jaso zuen Mariak lan bila eginiko ahaleginen ordaina. Egunero garbituko zuen atalondoren bat hortik aurrera eta sos batzuekin etxeratuko zen, bidean buruko ideia nahastea atondu nahian. Bazirudien lasaitasuna euren egunerokoaren jabe egiten ari zela pixkanaka. Etenik gabe buruan kezkak burrunbaka bazebilzkion ere, azaldu ezinezko bizia zerion Mariak masail gorrixken artean josia zuen irriari, Telmoren bularrean burua jarri eta eguna nola joan zitzaion kontatzen zionean.

Etxea txikia izanagatik, argitsua zen eta eguzki goxoak irekiarazten zizkien begiak igande goizetan, presak ohetik ateratzen ez zituen egun bakarrean. Mariak begiak ireki aurretik bilatu zuen izarapean Telmoren gorputza. Falta zela konturatuta begiak zabaldu eta ingurura begiratu zuen. Armairuko apalak hutsik ikusteak zegoena baino biluziago sentiarazi zuen. Hotzikara azkar batek jarri zizkion hankak lurrean irria erauzi berri zion ulertezintasunari. Etxekoak ziren pentsamendu bakar. Traizioak errebotean jo zion oraingoan.

Hiru asteren buruan etxeko giltza bat aurkitu zuen postontzian.

Gristasuna puruegia zen Mariaren irudimenak koloreztatzeko.

Hirira iritsi zenean, kalean norbait segika izateak izutzen zuen Maria. Taberna hutsek. Farola gutxiegiko kalexkek. Lokartzerakoan Telmoren besoak bere inguruan ez sentitzeak. Aitak aurpegira berriz begiratuko ez ziola pentsatzeak. Bere nebarentzat haurtzaroko oroitzapen lauso bat baino ez izateak. Hainbeste kilometroko urratsa lokatzetan lurreratzeak. Bere itzalak noiz ihes egingo zegoen orain, bakardadeak noiz harrapatuko. Estropezu noiz egingo, iparraren zentzua noiz galduko.

Iluntze hartan ezpainak margotuta atera zen etxetik Maria. Bakarrik bazegoen bakarrik ibiltzen ikasi beharko zuela gogoratu zuen, bere baitan etxeko atea itxi aurretik.

Gau hartan ere mozkorrak tabernen jabe eta tabernen jabeak mozkor bilakatu ziren txokorik ikusezinenetan. Kopa hutsen bilduma osatu zuen Mariak katu beltzez bete-

riko zulo hartan. Bildumako pieza bakoitzeko zazpi bakardade trago, zazpi begirada lizun, zazpi hitz likits…

Dogma sakonegiak ziren titiritero, eta bera, marioneta.

Gustua hartzen hasi zitzaion bere burua ezustean harrapatzeari. Gustua, sabela estutzen zion euforia motz bezain erabatekoak gorputz osora igortzen zuen oihartzunari. Gustua, lehen aldiei. Lehen aldi guztiei. Horregatik hasi zen gauero mozorro desberdinarekin ateratzen. Laster utzi zion lanera joateari. Zituen lotura apurrak eten eta askatasunak utopia izateari utziko ziola agindu zion bere buruari.

"Inkontzientziaren gerra etengabeak neuronak itotzen dituen bezala laztandu zenidan bizkarra larrua jo genuen azken gau hartan, keinu haiek azala nola erretzen zidaten ohartu gabe. Arrasto hutsalok bertan diraute, Telmo. Ez ditut ezabatu nahi izan. Nire hurrengo biktima zuk ni maitatu ninduzun eran maitatu nahi dut eta ez dut bizkarrean daramadan zama baino hoberik aurkituko maitasuna gorroto bihurtzearen ekidin ezinezko katean".

Igande goizetan pertsianak beheraino jaitsirik egoten ziren Mariak lo egiten zuen gelan, hori edonon zelarik ere. Koloreek sendabide sena galdu zuten. Kezkak edalontzi hutsetan geratu ziren.

Urak paperari gorputza bezala lapurtu zion gauak izatea Mariari, oharkabean, eta beste bat hasi zitzaion erraietan gorpuzten, ordura arteko hutsuneak gainezka egin arte betez.

# Heriotzaren hurrengo geltokia

Ane Lezama Escribano
Gernika institutua
Gernika-Lumo

Gaur egun kaxkarra egiten duela dirudi, hotza, euritsua, tristea… Ohetik eskua luzatu dut leiho parera, nigandik zenbait zentimetrotara dudan beirate handi lausotura. Pertsianak leihoa estaltzen du erdi partera arte. Errezela alde batera mugitzen saiatu naiz atzamarrekin… Mendi tontorrak zuriturik ikusi ditut eta kalean ez da inor ageri, alboan bizi den auzokoa paseatzen izan ezik. Iruditu zait aukerarik hoberena ohetik jaikitzea izango dela, tripa-zorriak gosari eskean ditut eta. Maindireak nire gorputzaren gainetik kentzerakoan, ikaragarrizko hotza sentitu dut; hala ere, bertan geratzeko asmoa baztertu eta, bastoia hartuta, sukalderantz abiatu naiz.

Hantxe daude gure alaba eta andrea, biak bertan goxo, gosaltzen. Ondo igartzen dira laurogeita hamabost urteak, laurogeita hamabost urteak ondo igartzen direnez!, logelatik ezkaratzera heltzeko bostehun argi-urte behar izan ditut eta. Hankak ere makaltzen ari zaizkit eta aurpegiko ximurrak ximurragotzen. Ez dut, behintzat, betaurreko super graduatu zera horien beharrik, ezta burua atontzen laguntzeko botikarik ere; gaitzerdi. Mahaira hurbildu naizenerako, eguneroko pilulak aurkitu ditut esne katiluaren

ondoan. Esertzen lagundu ostean, alaba nagusiak musu bero handi bat eman dit eskumako masailean. Bizirik jaso dudan azken musua.

Basoa hartu eta lehenengo zurrutadarekin irentsi dut bihotza kontrolatzeko pilula. Aurrera begiratu eta, bat-batean!, alabaren aurpegia guztiz aldatu dela sumatu dut; azal-kolore normala izatetik, zuri zurbil bihurtzera pasatu da; hurrena, berriz, ahoa irekita, garrasi hutsean, nigana datorrela sentitu dut. Burua sutan izango banu bezala antzematen dut edo, agian, norbaitek buruan milaka ostiko jo izan balizkit bezala. Ezpainak bustirik dauzkat, adurra dariola; ordezko hortzak, aldiz, jausteke. Baina orain ez dut ezer ikusten; ezer ez dut ikusten…! Aldi berean, kobazulo beltz batean soinuak nola, halakoxe moduan dut entzuten: ozen, sendo; urrunetatik, baina.

Inguruko zaratak egoera tristea adierazten du eta konturatu naiz ni neu naizela arrazoia. Bum, bum, bum…!, entzun da halako batean. Aulkiarekin batera, lurrean amaitu dute ene hankek, ene gorputz-enborrak, ene denak; buruak izan ezik. Esku leun, fin eta txikiek eusten dute ile urdinez estaliriko kasketa. Kolpe itzela hartu dudala dirudi, ezkaratzean tentsioa sortzen ari da eta.

Leihotik anbulantziaren sirenak entzuten dira; etxeko atean, berriz, tinbre soinua. Dirudienez, medikuak heldu dira, ezagutzen ez ditudan ahotsak hitz egiten didatelako, zenbait esku sentitzen ditudalako neure soinaren gainean haztamuka, aparatu bereziak-edo jartzen. Ez dakit zer demontre gertatzen ari den eta urduritzen hasita nago.

Denboratxoa iragana da harrezkero. Orain dena da bakea: zuri kolorekoa, edo urdina ere bai, agian. Usain

berezia sumatzen dut; ez da gure etxekoa, ez. Nahiz eta, begiak itxi antzean dauzkadalako, ezer gutxi ikusi, iluntasun bete-beterik ez dagoela senti dezaket. Goiko lanpara argi mehekoa da; oso argitasun berezia darie nire begiei. Ez da ia zaratarik entzuten, erizainena izan ezik, eta nire ezkerretara dudan bihotz makinarena. Noizetik noizera, buruko sutea amatatzen didan zain-barneko injekzioa ematen didate. Drogaren menpekoei eragiten dien sentsazio berbera sortzen du morfinaren injekzioa hartzeak. Ni bakar-bakarrik nago logelan, giroa ustelduta dago, ez du inolako bizitasunik. Tristezia eta poza, aldi berean, usaintzea ez da batere zaila. Ez da zaila, ez, jakitea, gainean ditudan izarek begiak dituztela, eta hainbat momentu on eta txar ikusi izan dituztela lehenago ere, hamaika biderrez.

Urrunetan pauso batzuk entzuten ditut, pauso leun arinak; emakume birenak dirudite. Atea ireki eta segituan gure alabaren, etxeko txikiaren, ahotsa nabaritu dut. Eskutik heldu nau gogotik eta bekokian bere ezpain hotzak sentitu ditut. Baina ez naiz ni gertatzen ari bide denaren jabe guztiz. Arraro samarra ere egin zait inor ni bisitatzera etorri izana, UVIn egonda, gehienetan ez baitute sartzen uzten senidea ikustera. Beldurrak nire gorputza goitik behera astindu du: hilko ote naizen beldur naiz; azkeneko agurra eman gabe joango ote naizen beldur, jaso dudan benetako musua goizean goizekoa izan ote den beldur… Baina alabak berriro estutu du nire eskua eta horrek lasaitu egin nau, lasaitu nauenez horrek. Lurretik zerurako bidaiari ekiten badiot ere, gutxienez behintzat, alabaren goxotasuna antzeman ostean izango da. Hitz egiten dit, belarri izkinara hurbiltzen zait, txikitan bizitako momentuak gogorarazten dizkit. Barre egin nahi dut, baina ezin; negar egin nahi dut, eta ezinezkoa egiten zait. Ezin dut atzamar

bakar bat ere mugitu eta horrek mina eragiten dit. Ez min fisikoa, psikologikoa baizik. Ez naiz, ez nago, nahi eta ezinaren arteko lotura betetzeko gai. Horixe da, behar bada, koman egotearen seinale.

Bien bitartean, erizainak beste injekzio bat jarri dit, eta hodei baten gainean etzanda banengo bezala nago orain. Hodei batetik bestera paseatzen inolako ardurarik barik, ezelako min barik, txikitan amestutako itxurazko paradisuan. Hau bai bizitza!

Konturatu naizenerako alabaren babesa joan egin zait. Haren berotasuna berriro jasotzea da gehien espero dudana. Segituan ahantzi dut txikienaren falta. Morfinaren lana ikaragarri ona da. Edonork nahi izango lituzke mota honetako dosiak, goxo-goxo beste nor izan bat lortzeko, sarri-sarri atea jo eta jarraian hildakoen munduan agertzeko. Harritu egin nau dosien areagotze prozesuak. Uste dut garun-isuriak lur jota utzi nauela; uste dut ez dudala beste horrenbeste ordu iraungo. Injekzioetan polito-polito itzaltzen-itzaltzen nauen beste substantziaren bat badela sumatu uste dut, nire gorputzaren argitasuna ez baita hain distiratsua.

Ospitalean giroak lehenean dirau; ia ezer ez da aldatu arratsaldetik goizaldera. Inoiz ere sentitu ez dudan sentsazio ikaragarriak bildu nau, borobildu nau. Plazera! Hori da, plazera. Ez, ordea, sexu edo soin-gozamenaren bidezkoa; presiorik gabekoa, baizik. Anboton dagoen "Deabruaren igarolekua" behatz puntetan zeharkatu eta lasai egotearen sentipenaren parekoa da. Bizitzarekiko inolako ardurarik eta uztarririk ez izatearen aldartea, ezer ere galdu ezinaren sentsazioa… Dena galduta dago, izan ere, eta…

Nire ezkerraldeko makinak soinua ateratzen du. Lasaigarria dut oso hura entzutea. Jakin badakidalako marrak dituela pantailan margotuak, gora eta behera, gora eta behera, saltoka, hotsarekin dantzan. Une honetan mina sortzen ari zait belarri-zuloetan… Soinua altuagoa da, baina tonu beti batekoan mantentzen da. Marrak, berriz, ez du errusiar mendiarena egiten, igo eta jaitsi, alegia. Tonua bezala, marra bera ere joanaldi zuzenean mantentzen da jada. Apaltzen ari naiz, moteltzen, txikiagotzen… Plazer berri bat dut nabaritzen, aspaldi galdutako zenbait ezagun eta senide ditut elkartzen, dena dut dagoeneko ilun ikusten… Kolore guztiak momentu batean gurutzatu egin zaizkit, baina bat nagusitu zait. Bat. Horia, laranja, berdea, urdina, gorria, morea, marroia, BELtzA… Piiiiiii… Orain dena da bake, dena dut beltz; ez dago urdinik, ezta zuri kolorerik ere. Makina isilik dago; erizaina, urduri samar. Izan ere, nigana heldu denerako, ihes egin baitut.

Ihes, ihes… Ihes hurrengo geltokira, bakoitzaren burua libre den tokira. Mundu zabal, garden, indartsu batera, erlijioak tokirik ez duen plaza argitsu batera. Orain, une honetan, ea zergatik galdetzen diot neure buruari, ea zergatik mundu mugatu batean konformatzen den gizakia, men egin behar den tokian, eta nolatan ez duen nahiago bertso idatzi-gabeez eta musika isilez eratutako honako hau. Hemen hasten da benetako bizitza, muga gabekoa, demokratikoa, ordaindu behar ez den adierazpen askatasunaz gozatzeko aukera ematen duena, berdintsua... Askatasunak bizitza markatzen duen gunea, lurrak baino jende zoriontsu gehiago batzen dituena. Zer ote da bizipoza atsedenik barik?

Pozaren menpeko bihurtu naiz. Definizioak definizio, heriotzak ez du kanpotik begiztatzen den zera bat zertan izanik, barrutik bertatik bizi izana baizik. Egoismoa alde

batera utzirik, zahartzaroak askatasunera eramaten duela sinesteko ordua heldu da. Baina, noski, beti erakutsi digute negar egiten…

Une honetan, berriro ere, ikusteko gaitasuna dut; beste era batera, ordea; heriotzak ahalbidetzen duen erara, ezkutatuta, inork ezin nauelako begietsi. Giroa aldatu egin da bat-batean, ez diot usain onik hartzen baina suposatzen dut ohikoa dela kanposantuetan. Zenbait pertsonak beren sorbaldetan naramate azken bizitokiraino, gorpuak betirako bertan iraungo duen tokiraino. Dardaraka hastearekin batera, hotzak ere hartu du nire gorpua. Gorputz hau, berez, munduko harririk gotorrena bezain gogor eta hotz dagoen arren, zementua nagusitu egiten zaio. Horma-hilobia nire gorpuzkiaren eskean sumatzen dut, berotasuna eta goxotasuna emateko, nire ondorengoak, hortik eta hona, neu nagoen aldera pasatu arte. Bizitasun osoz dut entzumena oraindik. Eta senideak negar malkotan antzemateak bihotza, beira balitz bezala, zatitxoetan txikitzen sentitzen dut. Baina ezin dezaket ezer egin.

Barnean nago jada, epeltasuna eskuragarri dut eta usaina ere aldatu egin da, umel eta itxi antzekoa. Konk, konk, konk… mailuaren hotsak hilobian geratzen den zuloa estali du, marmolezko tapaki bat barrurantz bultzatuz eta zementuaz estaliz. Bertan iraungo dute, hemendik eta betirako, nire arrasto eta irudiak, Carmelo Mintegiaren izenpean, izan naizenaren izenaren pean.

# Mugatutako gauak

Eider Urkiola Soraluze
Beasain  institutua
Beasain

**Joseba Sarrionandia:**

***"Barruan dudan mundua***

***ez da kabitzen barnean neukan gelan".***

Ez nago hurbil, zugandik diot, urrun oso urrun baizik.

Ea zure falta sumatzen dudan? Galdetzea ere... Haur txiro batek ahora zer eramanik ez-eta ogi apur baten beharra sentitzen duen irrika beraz. Edo-eta guda baten erdian tiro eta danbada ankerren erruz gurasoak galdu dituen haur gizajo batek aita-amen berotasuna eta babesa desiratzen dituen bizitasun berberaz. Bai, bistan da zure falta sumatzen dudala.

Oroitzen al zara elkarrekin pasa ditugun une eder bakoitzaz? Gure bizitza osatu duten une goxo eta politak, den-denak oroitzapenean gelditu direnak. Ba, badakizu zer? Gauero oheratzearekin batera bisita egiten didate. Banan-banan agertzen zait gomuta bakoitza, ametsetako mamuak bailiran. Beti ere, izpiritu hauen intentzio mal-

tzurretatik urrun, oroitzapen goxoek poztasuna iradokitzen didate. Eta horri esker gustura lokartzen naiz, haur jaioberriak amaren bular artean egiten duen lo sakon ederrean murgilduz. Hala ere, esna nagoelarik ere amets egiten dut nik. Ez al dakizu, ba, zugan bizi direla nire amets amaigabeak? Egia esan, egun osoan zehar ezin dut zure irudi maitagarria nire gogamen isildutik aldendu. Zera esan nahi dut, ez dudala gauari itxaron beharrik zurekiko oroitzapenetan murgiltzeko. Egunak bukaezinak dirudite hemen barruan eta aparteko zereginik ez dudanez, zer besterik egin dezaket, bada? Zugan pentsatu; zutaz oroitu; zugatik negar egin, zugatik tristatu, poztu, atsekabetu, alaitu...

Bizi ala iraun, zertan dihardut azkenaldi honetan? Amak behin, barnean zuen zirrara bizienaz, ilusio handienaz, maitasun beroenaz eskaini zidan parada ezin hobeari batere probetxurik atera gabe? Inork inoiz inori egin liezaiokeen oparirik ederrena gutxiesten? Nola liteke? Eta guztia gizabanako batzuek etsaitzat nautelako. Nor eta ni etsai, marka da gero! Ezagutzen ez nauten seinale. Zuk, ostera, ondotxo ezagutzen nauzu, nik zu adina ia. Eta badakit ziurtasun osoz bizia bera ere emango zenukeela ni inoren etsai ez naizela defendatzearren. Eta eskertzen dizut, egunsenti bakoitzean, eguzkiaren izpiak leihoaren gardentasunetik islatzearekin batera, zure ezpain mamitsuek nire zartatuak goxo-goxo ferekatu eta miaztu ahal izatea eskertuko nukeen bezalaxe.

Ea non nagoen? Ba, nik neuk ere ez dakit ziur, edo litekeena da ondotxo jakin bai, baina onartu nahi ez izatea. Dena dela, ez dut uste gustuko izango zenukeenik. Toki iluna da, zeharo goibela eta ikara puntu bat ere badu. Hemen edertasuna lekuz kanpo dago eta bai poza, bai alaita-

suna inoiz gutxitan goza ditzakedan sentipenak dira. Argitasun bizienak ere iluntasuna islatzen du, etorkizun beltz baten agerpena, lagun izango ez zaitudan geroarena.

Agintari arrotzen menpean bizi behar hau nekez jasan dezaket. Ez da batere lan makala ezezagunen arteko "bizikidetza" garatzea. Izan ere, zementuzko lau horma hauen artean guztia da zorigaiztoko: guzti-guztia eta guzti-guztiok. Ez da bat bera ere libratzen! Inork ez du laguntasun kontzeptua barneratuta, norberak aski du bere buruari eustearekin, tinko, gogor, zuzenean zulora, ezerez beltzera, erortzea saihestearren. Imajina dezakezu, beraz, zernolako etsipenaz gogoratzen zaitudan.

Beharbada, bakardadea da gaitzaren funtsa; isolamenduan bizitzeak eragiten didan mina; hainbeste maite ditudan eta era berean maite nauten pertsonenganako urruntasunak sorrarazten didan sufrimendua. Zin dagizut, ez da batere erraza hemen barruan irautea. Bizpahiru orduz ematen didate kanpora ateratzeko baimena, bizpahiru orduz besterik ez. Denbora tarte labur hori patioko zeruari so igarotzen dut, nire barne munduan murgildurik. Ateaz beste dagoenarekin kontaktuan jar naitekeen eguneko istant bakarra da. Bi orduz soilik bada ere, zuk bistaratzen duzun goialde berari errepara diezaioket; ehun eta hogei minutuz besterik ez bada ere, gure herria argiztatzen duen amandre berak berotzen du nire atsedentokia. Baldintza bat bete behar dut, ordea, egunaren momenturik jasangarrienaz gozatu ahal izateko. Badakizu zein? Ba, txintxo-txintxo portatzea, haurtxo batek irrikaz desiratzen duen gozokia eskuratzeko egin behar duen moduan. Eta gaizki portatuz gero, ba, amesgaizto honetako pasarte maltzurrenera zuzen-zuzenean. Baina, beno, hori alde batera utziko dut, ez dut zu beldurtzerik nahi eta.

Egunsentia. Eguzkiak iraitzi ditu bere lehenengo izpiak lurrerantz egunaren hasiera iragarriz eta ni amak noiz esnatuko zain. Amaren oihu goiztiarrak aditzeko irrikaz nago, orain hamazazpi bat urte hainbeste gorrotatzen nituen haiexek. Amak, ernegaturik nire logelara sartu eta goxo-goxo biltzen ninduten maindire leunak keinu bizkor batez larruazaletik aldentzen zizkidan. Ni muturtzeraino muzintzen ninduen ohitura nardagarria zen hura eta, begira orain, egundoko peitua ez diot, ba! Ez amak, ez beste inork ez zuen nire logelako atea zabaltzeko burdinazko gakoaren beharrik; inork ez zuen nire ateko sarraila giltzaz ixten kanpora atera ez nendin. Artean, aske nintzen.

Askatasuna, mugarik gabeko printzipioa.

Baldintzaturik ez dagoen guztia aske da. Kateez lotuta ez dagoen oro libre da.

Nor dago, orduan, preso?

Mugatutako edozer, baldintzaturiko dena, kateez lotutako guztia?

Ez dakit, ba, zer esan...

Toki honetan egun guztiak berdinak dira. Egunero errutina bera, non minutuek orduak dirudite eta egunek asteak eta hilabeteak. Ateko sarrailaren kink-klon hots pozoitsuak iratzartzen nau goizero. Baliteke zarata itxaropentsua izatea giltzapetuarentzat, ez, ordea, nire kasuan. Nekez hurbilduko lirateke zaindariak nigana askatasunerako giltzarria esku artean dutelarik. Nori eta etsaiari halako oparia eskaini? Halakorik, nola, ba! Kink-klon

zarata pozoitsua aditzearekin batera hasten da mugatutako beste egun bat. Zugandik urrun beste egun batez.

Bekatu egin dut, laztana. Bekatu egin omen dut, horixe diote burdinazko barroteez beste aldean daudenek, eta gogor, oso gogor ordainduko dudala eginiko sarraskia. Eta beldur naiz. Ikaratuta nago, nik ez dut-eta nire burua gaizkiletzat... Nola liteke, bada, herri bat maitatzea bekatu izatea? Hain hoben larria al da, ba, hori? Hainbeste zor diogun aberria preziatzea bekatutzat har daiteke benetan? Horrelakorik ere! Sorterria maitatzea heriozko bekatua bada, eraman nazatela orduan.

Bihotz-bihotzez maitatzen zaitut, bene-benetan diotsut. Taupadaz taupada, are eta gehiago. Hain da izugarria zuganako sentimendua, non haien artean preso nauten zementuzko lau horma hotz hauek motz geratzen diren. Barne sentipen sendoek ez dute lekurik topatzen bertan eta barroteen arteko zirrikituetatik ihesi zugana doaz. Ihesbide: bostehun kilometro luze; iheskide: zuganako gertutasunak dakarren goxotasuna.

Eta bigarrengoz diotsut: badakizu zer? Ba, nire gogoak zuk zuzentzen dituzun bitartean kontentu jarraituko dudala nire barne borrokari eusten. Eta negar egiten badut, ez da izango agintari ankerrek emandako egurragatik, zu alboan ez zaitudan sentipenak ematen didan ituntasunagatik baizik. Ukabilkada bortitzek ez didate minik egiten, zuganako urruntasunak eragiten didan ziztada pozoitsu bakoitza gogoan dudanean. Tortura bakoitza leun iltzatzen zait soinean; bihotzean, berriz, irmo tatuaturik, zure beharra dudala dioen esaldia.

Ez dut etsiko, ez hain erraz behintzat, horixe baita eurek nahi dutena. Eta zuk, urruntasunetik bada ere eskua lu-

zatuko didazu. Zure ausardia ezinbestekoa izango zait bide aldapatsu hau urratu eta aurrera egin ahal izateko. Biok elkarrekin duintasunez eutsiko diogu geure nahiari, zuk argitan, aberriaren goxotasunean, nik itzalpean, ziegaren iluntasunean. Lortuko dugu, elkartasunean; laguntasunean eskuratuko dugu gure desioa.

NOIZBAIT, elkartuko gara. Maitatuko nauzu, maitatuko zaitut, urruntasunaren menpekotasunetik at. Aski da! Gogaitu naute jada! Ez dut beste karesarik onetsiko, ez beste oinazerik, ez eskarniorik! Zure ferekak soilik gura ditut, maitasunezko laztanak, batasunezko besarkadak. Inori ez diot utziko ni berriz ukitzen; inork ez du sekula izango esku latz mingarriak nire larruazal zeharo suminduan ipintzeko betarik. Zuk zeuk bakarrik, beste inork ez. Etsaiek ez dute nire gain botererik izango, zu zeu bakar-bakarrik izango zaitut agintari. Beste behin, eta ez azkenekoz noski, zure azpian zigortu nazazun, zure gatibu izango naiz, eta ez beste inorena.

NOLABAIT, egingo dugu topo. Eta mundu osoko pertsona zorigaiztokoenak izatetik, zorioneko izatera helduko gara. Agian zail suertatuko zaigu mugatutako gau bakoitza berreskuratzea, dena den, era batera edo bestera konpentsatuko dugu eta kitatuko dugu behingoz gure sentimendu beroenekiko dugun zorra. Eta aspaldian ez bezala, begietara zuzen-zuzenean begiratuz esango dizut maite zaitudala. Ez ohi dudan legez, patioko zeru karratuari so. Goi horri begira ziegako barroteen isla bistara dezaket, nire begirada goibela lausotzen doan heinean. Zure begi ederrei erreparatuz, ordea, itsutasun erakargarria datorkit, elkartasunaren irudi. Zu eta ni, inork galaraziko ez dizkigun unerik basatienak eta momenturik ederrenak aldarrikatuz. Une garratz hauek guztiak momentu gozo bihurtuz.

NONBAIT, bat egingo dugu. Eta betiko izango da. Inork inoiz, inon, inola ere ez du lortuko zu eta ni berriz banatzerik. Arrats ilun hartan elkarrengandik urrun bizitzera kondenatu gintuztenek ez dute ulertzen elkarrenganako maitasuna beraiek sortutako lege ustel horien guztien gainetik dagoela, muga guztiak gainditzen dituela. Ez dute onetsi nahi naturaz gaindiko indar ikaragarri honek alaitzen gaituela. Horretxegatik, DOAZELA PIKUTARA!

Agur esan nizun arrats hartan; zuk niri, laster arte, maitea. Azken agur goiztiarra izan zen, ez, ordea, erreala, itxurazkoa baizik, adio itxaropentsua.

Jakina da zure eskuek ez dutela sekula sentituko nire gutunak iradokitzen duen samina, bakardadea eta atsekabea. Zure begiek ez dute egundaino izango nire hitzak leitzeko betarik. Eta honela, hau guztia gogoeta xume batean geratuko da eta bertan ahantzi egingo da. Zuri eskainitako lerro bakoitza aireak eramango du udazkeneko hostoekin batera, firin-faran dantzaldi kopetiluna eskainiz. Isolamendutik idatzitako berba isilduak ahaztu egingo dira eta kito!

Bekatu egin dut, laztana. Bekatu egin dut, bai, bekatu mortala. Baina, jada ez naiz beldur. Zure barkamenaren zain geratuko naiz, besterik gabe.

# Letretaraino

Pablo Calleja Felipe
Gernika institutua
Gernika-Lumo

Domekako goiz osoa eman nuen filosofiako apunte infinitu haiek garbira pasatzen. Eguzkiak gogor jotzen zuen, lainorik ez, zerua urdin, eta hego haizea zebilen. Eta ni etxean sartuta, Platon eta bere kobazulo ziztrinarekin. Bertan behera utzi nituen apunteak, eguzkitako super Ray Banak buru gainean jarri, MP4a hartu eta txankletak jarrita txakurra ateratzen nindoan aitzakiarekin kalera irten nintzen hain gogoko nuen jan aurreko zigarroa erretzera.

Kristoren eguna egiten zuen! Nire etxe atzeko parkera joan nintzen eguzkitan jesartzera. Tirantedun kamiseta, txankletak, betaurrekoak eta aurikularretan "So far Away". Kobazuloan baino mila aldiz hobeto berotan egotea. Poltsikotik "Chester" paketea atera nuen. Zenbatu egin nituen, 6 zigarro neuzkan. Bat aukeratu eta ezpainen artean sartu nuen, gogor eutsiz. Txiskeroa atzeko poltsikotik atera eta bigarren saialdian piztu nuen. Beti da bigarrenean. Bi atzamarrez ondo heldu eta su eman nion ezpainetan itxaroten zegoen zigarroari; eta lehenengo zupada irentsi gabe era geldoan ahoko kea bota nuen, betaurrekoen aurretik gortina lodi hura nabarituz. Jarraian bigarren bat eman nion, luzea, sakona, eta gogor irentsi nuen, nikotina,

alkitran eta butano nahaste horren zapore gogorra eztarrian behera nabaritzen nuelarik. Eguzkitan erretzean datorkizun zorabio ahul hura segituan nabaritu nuen. Ederra benetan. Mark Knopflerek abesten jarraitzen zuen organo eta gitarra artean, eta ni aurikularrek sorturiko burbuila psikodeliko horretan murgildurik nengoen, zigarroa kezka handiena zen mundu paralelo eta guztiz pertsonal hartan.

Honelako uneak gustuko ditut. Nire ideietan murgiltzen naiz, eta mundua di-da batean konpontzen dut, kritika sozial anonimoak eginez, kritika suntzitzailea. Dena pikutara bidaltzeko ideiak behin eta berriz burua zeharkaten dit, ideia guztiz utopikoa benetan. Hizlari bikaina naiz ozen hitz egiten ez dudanean, baina alderdi hori isilpean gordetzen dut. Metatutako errautsa kendu diot, hainbat urtetan erretzearen ondorioz garatutako mugimendu arin eta eraginkor batez, eta gogor arnastu dut kea, dagoeneko marroiz tindaturiko bokilaren bitartez, poliki-poliki, zurrutada luze eta jarraitu batez kanporatuz. Erretzea gustuko dut. Momentuaz gozatzen nago, baina filosofiakoa ezin dut burutik kendu. Gizon greko hura jenio bat izango zen, baina nik ez dut zertan bizardun haren pentsamoldea ikasi. Une batzuetan, benetan, institutua eta ikasketak bertan behera uzteko gogoa ematen dit. Mila gauza ikasi behar ditugu, oporrak, asteburuak... kontuan hartu gabe, deskonektatzeko denbora jaten diguten irakaspen horien erruz. Une batzuetan dena bertan behera utzi eta mahai gainean notatxo bat jarrita alde egingo nuke. Kea irentsi dut. Umore txarrean jartzen naiz kontu hauekin, eta hori bakarrik nagoela.

Besoak luzatu ditut bankuko bi ertzei helduz, oraindik eguzki gehiago hartu nahiko banu bezala. Joan den urteko azal beltzaranak aspaldi alde egin zuen. Oraindik ez da uda heldu baina gaurko eguna hondartzan potrojorrean egoteko

egun horietarikoa da benetan. Zigarroak binaka erretzeko modukoa. Errautsa kendu diot eta bi atzamarrekin eutsiz ahora eraman dut. Kea arnasten dudan bitartean, keinua aldatu eta hiru atzamarrez heldu diot, filmeetako gaizkileak bezala. Ez da estetika kontua, erosoagoa egiten zait horrela, eta sudurretik bota dut. Erretzeko mila era eta estilo daude, garrantzitsuena unea gozatzea da, xurrutada bakoitza, nikotinak estalitako albeolo bakoitza... auto baten iragarkia ematen du: "gozatu, sentitu". Erretzea txarra dela txikitatik entzun izan dugun zerbait da, nahiz eta lehen ondo ikusita egon. Orain erretzea ia-ia delitua da. Eta guk txikitan zenbat aldiz esan dugu "nik ez dut inoiz erreko…" eta egun batez, lagunen aurrean ondo geratzeko pare bat "kalo" eman eta astean gutxienez 4,60€ gastatzen amaitzen duzu nikotina apur bategatik. Ze goxo eta ze merke egoten ziren gominolak eta flashak! Baina gauza horiek umeen kontuak dira. Hazi egin gara. Garbigailuan sartuko nintzateke, ea horrela uzkurtzen naizen, berriz ere txikia izateko. Inuzentea. Gurasoek, bereziki amak, erretzea txarra dela esaten didate, asma kontuagatik batik-bat, eta medikuak berdin; baina pare bat urte dira erretzen hasi nintzela eta momentuz ondo doazkit birikiak. Helduko da eguna martxan egoteari utziko diotela, baina momentuz ez zait axola, ausartegia naiz, badakit.

Kea irentsi dut. Horrenbeste pentsatzen, konturatu gabe erdia besterik ez zait geratzen. Gori-gorian dagoen muturrari bota diot kea, kanutoa izango balitz bezala. Mmmm... kanutoa. Aspaldian ez dut erretzen. Txakurra urrunean dabil, beste bati ipurtzuloa usaindu eta miazkatzen. Txakurrek bezala horren erraza izango balitz neska batengana hurbildu eta hitz egitea... eta ez da nesken faltagatik. Pare batekin atera naiz, baina ez da ondo irten. Birjina jarraitzen dut izaten. Ez dakit zergatik ote den;

amodiozko-gidaliburua goitik behera irakurri dut. Naturala izaten saiatzen naiz, naizen modukoa, maitekorra, baina ez dakit zein ote den zergatia. Ez naute ulertzen, edo agian ez dut oraindik pertsona egokia, laranja erdia, azukre koxkorra edo nire Angelina Jolie aurkitu. Disneyri kasu egin beharko diot, eta tontakeria horietan sinetsi, eta zapata galduko duen neskaren zain itxaroten egon; gaur egun Hunterrak edo All Starrak agian. Zigarroa, nire azken zigarroa izango balitz bezala erretzen nabil. Eztarria zarratu xamarra nabaritzen dut, medikuek arrazoi ote dute? Haien omenez, zupada, kalo, tiro bat eman diot eta irentsi gabe ahoa ireki dut, ke burbuila aurpegi aurretik igoz eta zeru urdinean galduz, pixka bat gehiago kutsatuz. Ke apur bat gehiago egoteagatik... aldaketa klimatikoa deitzen diote. Euskadi tropikala! Lehendakaris bezala.

Beste zupada bat. Ez dakit arinago esan dudan, baina erretzeak, eguzkitan bero-berotan erretzeak, ez dauka preziorik. Beno, 4,60€. Gose naiz. Erretzeak gosea ematen dit, eta erretzen egongo ez banintz, berdin-berdin gose izango nintzateke, janariarekin arazo bat daukat. Lodi egon ez arren, arazo bat daukat. Behintzat jatekoa badaukat, momentuz. Behin eta berriz harritzen naiz "bocadillo imaginario"aren iragarkia ikustean. Duela pare bat urte utopia bat zirudien, gerta ezinezko zerbait. Baina Mediterraneo itsasoa zeharkatzea ezinezkoa zirudien egoera hura, gure gizartean gertatzen ari da egunero, orain, ezer ere egiten ez duen gure gizarte isilean. Gero eta hesituago egonda, orduan eta isilago, otzanago jarraitzen duen gizarte hipokrita eta berekoi batean. Umilak? Koldarrak. Haien burua imajina ezinezko egoera hartan ikusi arte alboko lagunari laguntzeko kapazak izango ez diren biztanlez beteriko lapur-gizartea. Lapurrak, denak. Ahal duenak folio bat, agian grapagailu bat lapurtzen du, ebasketa, edo eskura

edukita pare bat milioi, zergatik ez? Denak balio du. Gero norberaren alderdi politikoak babestuko gaitu, eta beharrezkoa bada legeak aldatu eta epaileak erosiko ditu zure ordez etxea ordaindu ezin duen eta polizia etxera sartu zaionean bere buruaz beste egiteko astia izan ez duen langilea espetxera sartzeko, estatua poliki-poliki ustelduz doan heinean. Eta bitartean berdin jarraitzen dugu, batu ordez, elkar banatzen gaituen amorrua garrantzitsuagoa da, betiko kontua.

Hura moskeoa harrapatu dudana momentu batean... horregatik hizlari bikaina izan behar dudala uste dut. Ni neu ere hunkitzeko kapaza naiz. Horrelako egoeretan (kea irentsi) milioika lagunen aurrean nagoela sentitzen dut, hainbat mikrofono ditudalarik. Salvador Allenderen dizipulu bat besterik ez naiz, eredu bat, gaztea eta iraultzailea. Zoritxarrez, gaur egun Tele5 ikusten dutenak gehiago dira. Mundua ez da etxeko butakatik aldatzen, altxatu egin behar dugu. Idealista bat naiz.

Egunean zehar milaka paranoia izaten ditut, baina ohera sartu orduko ez ditut idazten. Galdu egiten dira. Platoni konpetentzia egingo nioke argitaletxe eroren batek nire literatura berriztatzailea argitaratuko balit, eta belaunaldi berriei nire pentsaera inposatuko balie. Literatura zuzena, gaur egungoa, kritikoa... zentsuratzekoa, egiazkoa. Baina jendeak ez luke egia irakurtzeagatik ezer ere ordainduko, nahiago dute zientzia-fikziozko egunkariak irakurri. Jendea jakitearen beldur da, ideiak edukitzearen beldur. Ezjakinak. Jakiak.

Txakurrari txistu egin diot, uzki-usaina gustatu eta bestearekin ihes egin du. Segituan etorri da, ondo hezituta dago. Menperatuta. Metropoli bateko biztanlea dirudi: goiz altxatu, lanera joan, ordu erdi eskas jateko, lanera,

etxera leher eginda heldu... bizitzeko lan egin, lan egiteko bizi, eta lan egiteagatik hil. Eta lehengo harira bueltatuz, hori da hemendik alde egiteko arrazoietariko bat, baina ez da garrantzitsuena, bestea niretzat gordetzen dut. Ideia eta itxura guztiak errespetatzen duten toki batera alde egingo nuke. Kaletik kapela jantzita edo ez dakit non piercing bat edukitzeagatik txarto begiratzen ez dizuten pentsamolde irekiagoko toki batera joango nintzateke. Estresik gabeko toki batera, dirurik gabe, bereizketarik gabe... Aurkitu al dute dagoeneko beste planetaren bat bizi-baldintza egokiekin? Pertsonak txarrak gara, jaiotzez, eta uste dut heziera jarrera naturala ezkutatzen digun jakinduria besterik ez dela. Platon! Entzun al didazu? Kobazuloari mila buelta ematen dizkio.

Arratsaldean motorrean joan ahalko nintzateke hondartzara neskalagunarekin, baina ez daukat neskalagunik, beraz... gasolina gutxiago gastatuko dut. Agian lagunen bat eramango dut, auskalo. Zigarro bat erretzera irten eta mila kontu bururatu zaizkit. Paketean “fumar da que pensar” jarri beharko luke. Gobernua kritikatzen eta, bitartean, zupada bakoitzean dirua ematen ari naiz estatuari. Gutxi falta zaio bukatzeko. Gogor arnastu dut, bokila nola biguntzen doan nabarituz. Azken zupadak beti erretzen dira presaz, arineketan. Gozatu. Berdin-berdin hilko zaitu.

Abestia bukatu da eta Anthony Hamilton & Elayna Boyntonen *Freedom* hasi da. Musika topera eramatea gustatzen zait, horrela nire burbuila hermetikoki zarratzen da, eta belarriak lehertu arren, musika ona bada, berdin dio. Begiak gogor ixtearen parekoa da. Dena mututu egiten da eta musika da entzuten duzun bakarra. Presa baduzu, techno apur bat, lasai joateko reggaea eta harro joateko boogieren bat, kaletik *Pulp Fictionen* Vincent

bazina bezala joateko. Edo Ennio Morricone, zergatik ez. Friki-paranoiko totala.

Berandu egin da (lelokeria asko esan ditut dagoeneko), kobazulora bueltatu beharko nuke. Inon idatzi gabeko paranoia asko gaurkoan ere, beti bezala. Ez daukat erremediorik. I am looking for freedom, looking for freedom… Zigarroari bokilatik eutsi diot, azken zupada emanez, letretaraino.

# PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Oroitzapena

Nerea Urrestizala Arenaza
Axular institutua
Santurtzi

“Gitarra baten soinua entzun nezakeen urrunean. Harien dardara sentitzen nuen bizkarrean eta, poliki, leporaino heltzen zitzaidan, garondoko ilea laztuz. Gatz usaina sudur-zuloetan zehar sartzen zitzaidan, pentsamenduak lainotuz, eta itsaso lokartu baten zurrumurru lasaiak gorputza erlaxatzen zidan. Eguzkia sartua zen ordurako, eta iluntasun itogarri batek estaltzen zuen ortzi amaigabea. Izarrek, ipurtargien malkoek, aitak esan ohi zidan modura, gaueko arrotzak kirikatzen zituzten, itsasoan euren bikiak bilatzen zituzten bitartean. Bero sargoriak bularra zanpatzen zidan eta izerdi tantak kopetan zehar irristatzen zitzaizkidan lasterketan, bekainetara heldu arte. Barre algarak kearen modura hedatzen ziren, eta norbaiten saihetsak sentitzen nituen bizkarraren kontra. Ekainak hogeita lau. San Juan sua azkenetan zebilen, itzaltzeko zorian. Sei lagun ginen osora, guztiak txikitatik ezagunak, ile beltzeko mutil hura izan ezik. Izkina batean zegoen eserita, kartoizko koadernotxo zahar batean zerbait zirriborratzen. Adarjotzeekin irribarre egiten zuen; irribarre makurra, lotsatia. Baina irribarrea, azken batean. Hala ere, inoiz ez zituen begiak bere koaderno ziztrinetik altxatzen. Munduan, bertan ikus zezakeena baino interesgarriagorik izango ez balitz bezala. Koadrilako

mutil baten lehengusua zela entzunda neukan; baina inoiz ez nuen ikusi gau hartaraino. Mihia hortzen artean helduta zeukan, eta eskuak azkar mugitzen zituen, arkatz txiki bat atzamarren artean dantzarazten zuen bitartean. Mugimendu arinak ziren, baina segurtasunez beterikoak. Jakinmina piztu zitzaidan orduan. Zer ari ote zen marrazten? Konturatu nintzenerako, bost minutu neramatzan mutilari zuzen-zuzen begira, begiak kliskatu gabe. Lagunetako bat begira neukan, irribarre bihurri bat aurpegian marrazturik. Begirada horren zentzua harrapatzean, buruarekin ezeztatu nuen, begirada jaitsiz eta irribarre antzeko imintzio bat eginez. Ez nekien oso ondo zeri esaten nion ezetz. Ez nekien oso ondo zergatik erakartzen zuen gazte horrek etengabe nire begirada. Ez nekien zer egin behar nuen. Ez nekien ezer. Baina, egia esan, hori ez zen berriegia.

Ordu erdiz jarraitu nuen bertan eserita, taldekoen elkarrizketa jarraitu nahian. Baina pairaezina egiten zitzaidan nire begien norabidea desbideratzea. Ilargi argiak bustitzen zuen, bere ingerada gauerdiko iluntasunaren kontra ebakiz. Ilea begietatik gertu kulunkatzen zitzaion mugimendu bakoitzeko, baina ez zituen begiak kliskatzen. Ez zuen begirada paper tolestu hartatik altxatzen. Eta bere begiak ikusteko grina neure barruan hazten zen, inolako koherentziarik gabe, izarrik gabeko gau ilun batean itsasoan galduriko itsasontzi bat banintz bezala, lurra aurkitzen lagunduko zidaten bi itsasargiren bila.

Azkenean, lekutik altxatu nintzen, brastakoan. Komun baten bila nindoala esan nuen; egia esan, ez neukan horren beharrik, baina aitzakia ona iruditu zitzaidan orduan. Gauaren iluntasunean murgildu nintzen, noraezean. Zirrara ezezagun batek gorputza zeharkatu zidan, goitik behera. Eta, diotenez, ezezagunari beldur badiogu ere…

ikaragarri gustuko nuen sentsazio adierazkaitz hura. Agian honezkero ezaguna nuen, ezin jakin.

*Eskuak heldu zizkidan. Beldurrak nire pentsamenduen agintea eskuratu zuen, eta ezin nuen hausnartu. Dardarka nengoen, baina ez maiatzeko haize hotzak eraginda, adrenalinak baizik. Ezin nuen, eta argi neukan. Ez nuen lortuko. Berdin zitzaizkidan lagunen algarak, edota apustu madarikatu hura. Dena berdin zitzaidan. Axola zitzaidan bakarra amildegi hartatik urruntzea zen, arriskurik gabeko nonbaiten bota, eta lo egitea. Ezertan pentsatu gabe. Hilabetez lo egitea, denok nire koldarkeria ahaztu arte. Baina bere esku hotza nirearen gainean nabaritzeak koldarkeria suspertu zidan. Bere begirada lasaia nire begietan murgiltzeak zalantzak suspertu zituen. Eta bere irribarre makurtuak pauso hura emanarazi zidan.*

Ordu laurden eman nuen oinez, gure San Juan su inprobisatuaren argitasuna iluntasunean galdu zen arte. Hondartza zabala zen hura. Niri behintzat amaiezina suertatu zitzaidan. Zapatila berriak harez beterik neuzkala hauteman nuenerako, oinetan milaka pikor neuzkan itsatsirik. Arkaitz heze baten kontra jarri nuen bizkarra, eta zapatilak kendu nituen, kontu handiz. Galtzerdiak ere erantzi nituen. Izerdiz bustita zeuden, harez beterik eta zola inguruan, tanto gorrixka txikiz apaindurik, guda zaurien froga. Banekien zapatila pare zahar bat ez zela ibilaldi luzeak egiteko oinetako aproposena, baina ezin nuen bidaia hura haiek gabe egin. Nire kuttuneko zapatila urdinak. “Ez urdin argiak, ez urdin ilunak” esan ohi nuen, “eguzkia zerumugan zehar ezkutatzean utzitako azken distirak itsaso urrunean sorturiko urdina”.

*Haizeak ilea korapilatzen zidan eta hau, basati, atorraren botoietan biribilkatzen zitzaidan. Gertu geundela*

*antzeman nuen. Haize biziak belar moztu berriaren usaina ekartzen zidan, eta aireak uda usaina zeukan; udako ekaitz baten ondoren, eguzkia hodei tartean jaio, eta zelai bustiek askatzen duten lurrin berezia. Etxetik gertu nengoen. Leihoa gehiago irekitzea gustatuko litzaidake, baina, banekienez, erdi apurtuta zegoen, eta ez zen toperaino iristen. Ez zitzaidan axola izan. Burua leihotik atera eta atzera begiratu nuen, bertan aurkituko nuena banekien ere. Bertan zeuden, zaindari leialen modura, barrezka, abesti ulertezinen bat zeruari oihuka. Eskuaz agurtu nituen berriz, edozein momentutan desagertuko ziren beldurrez. Klaxon hotsak erantzun zidan, beti bezala. Burua bueltatu, larruzko eserlekuan eratzan, eta eskua indarrez estutu nion, eskertuz bezala. Auskalo zergatik. Denagatik, agian.*

Aitaren batean trumoi urrunen hotsak entzun nituen. Lehenago hauteman ez banuen ere, tenperaturak behera egin zuen, azkarregi, eta arnasa mozten zuen hezetasun batek airea blaitu zuen. Egun osoko nekeak bat-batean hartu ninduen, eta erabaki nuen etxera joatea zela onena. Zoritxarrez, jertsea eta motxila sute ondoan utzi nituen, eta motxilaren barnean zeuden giltzak. Harkaitzetatik urrundu, eta korrika hasi nintzen basamortu heze hartan zehar, argi puntu lagungarri baten bila. Burua galduegi neukan, ibilitako bidea gogoratzeko. Nekeak eraginda bazen ere, mutiko hura zen nire arretaren jabe bakarra. Aurrean ez baneukan ere, bere irudiak barnea erretzen zidan, kearekin itoz. Ez nuen ezagutzen, eta ez nuen ezagutu nahi. Berdin zitzaidan bere izena, herria edota historia. Berdin hogei bazituen, edo hogeita hamar. Ez zitzaidan berari buruzko ezer axola. Bat-batean desagertu izan balitz, ez nuke nabarituko, bere begiak ikusiz gero.

Horrek hiltzen ninduen. Bere begirada nirearen gainean eduki behar nuen, segundo bakar batez bazen ere.

*Atzamar luzeak ile xerloen artean irristatzen zizkidan, poliki, baina zalantza izpirik gabe. Bere eskumuturrekoen aleek kili egiten zidaten garondoan. Sentsazio hura gogoko nuen. Inork ez zituen hark bezala egiten txirikordak. Dohain berezia zeukan eskuetan, eta bazekien. Ama baten leuntasuna. Bizkar atzetik barre algarak iristen zitzaizkidan. Falta zitzaizkigunak. Bata bestearen gainean zeuden, lurrean botata, gurin poto batengatik borrokan, barreak itota. Baten kizkur ilunak bestearen xerlo leunekin nahastatzen ziren, mordoilo deskribaezina eratuz. Azkenean, gauaren pareko ilearen jabeak potea eskuratu, eta barreak eragindako malko iheslariak idortu zituen, eskuaz. Konturatu ginenerako, ez zen etxe osoan gozokirik geratzen, eta xuxurlaka baino ezin genuen hitz egin, algara ozenen ondorioz.*

Heldu nintzenerako, itzalak baino ez ziren geratzen su inguruan. Sutearen azken sugarrek heriotza aurkitu zuten hezetasunean, eta isiltasunak aura misteriotsua ematen zion lekuari. Harea artean murgilduta aurkitu nuen motxila zaharra, eta erretako egurren artean jertsea. Errautsez gainezka zeuden biak, eta ke usain sarkorra zerien. Poltsaren barnea haztatu nuen, giltzen bila, baina hainbeste txokolatina bilgarriren artean, ez nituen antzeman. Egurren kontra jesarri, motxila hankartean kokatu, eta bertatik zaborra ateratzen hasi nintzen, giltza galduen bila. Halako batean, haien soinua entzutea iruditu zitzaidan, baina laster ulertu nuen soinu madarikatu haren jatorria ez zela nire poltsa. Begirada altxatu nuen, eta neure bost zentzumenek eztanda egin zuten, otso baten ahoaren gisako begi haiekin topo egitean. Bat-batean, ez nintzen nire buruaren jabe,

eta bihotzak ahotik ihes egin nahi zidan. Ez zegoen hitzik munduan esateko, ezta keinurik ere ezer adierazteko. Bakarrik ni irenstearekin mehatxatzen zuten zulo haiek ikus nitzakeen, ilargiari sena itzultzeko erregutzen nion bitartean. Arriskua erakusten zuten, segurtasuna hitzematen zuten bitartean. Irribarre makur hura ikus nezakeen haietan islaturik. Eta orduantxe, nireak egin zuela ulertu nuen".

Zaila egin zitzaion arratsalde hartako lana, bereziki zaila. Baina ezin zuen bere egitekoa saihestu. Ez berak, azken batean, bakea iritsiko zitzaion emakumeari. Oinaze guztiak desagerraraziko zizkion, behin betiko, horrek beste batzuen oinazea eragiten bazuen ere. Oztopo handiak igaro behar izan zituen urdin argiz margoturiko logela hartara iristeko. Isilpean jardun behar izan zuen, gau ilunaren pareko agure begidun bat egongelako besaulkian lo baitzegoen. Nekeak irabazi zion borroka, beste behin. Ezerk ez ditu gizakiaren indarrak gehiago ahitzen maitasunak baino. Eta aitona hark horretaz asko zekien. Gehiegi, zoritxarrez. Loaldi lasai hartatik ateratzeko puntu-puntuan egon zen, logelaren ate ondoan, zapatila urdin ziztrin batzuekin estropezu egin zuenean. Lotailu horixkak, noizbait zuriak izan zirenak, kontu handiz zeuden bilduak, begizta txiki batean. Zolaren errailetan, harea zegoen itsatsita, aspaldiko partez.

Kontu handiz saihestu, eta agureari berriro so egin barik, logelan sartu zen. Ederra zen, oso. Horma guztiak argazkiz gainezka zeuden. Zaharkituak zeuden gehienak, eta urrutiko garaiak ekartzen zituzten gogora. Garai alaiak. Gaztaroko garaiak. Hormei berriz begiratzea ere ekiditen saiatu zen. Zailegia zen hura guztia, sentimentaltasunez apaindu eta egoera okertzeko. Lurrera begira, ohe albora heldu zen. Bertan zegoen, maindire zurien artean, lo.

Greziar jainkosa baten edertasuna gordetzen zuen haren aurpegiak, urteak ezkutatzen saiatu baziren ere. Baina ezegonkortasun itzal batek zeharkatzen zuen. Haren loa ez zen lasaia, beti bezala. Urte asko zeramatzan borroka etengabe hartan, eta honek indar guztiak atzitu zizkion. Merezitako bakea berreskuratzeko ordua heldua zitzaion.

Azkarra izan zen. Kolibri baten hegoen astindu baten modukoa. Izarren ñir-ñiraren gisakoa. Eta ederra. Ederra izan zen, heriotzak egin zion opariagatik. Bizitza luze eta eder bat bizi, eta guztia ahaztu duen pertsona bati egin dakiokeen oparirik preziatuena. Norbait indar osoz maitatu, eta bere izena ere ahaztu duen norbaiti egin dakiokeen bezuza politena. Emakume hark mundutik aldendu baino lehen bizi behar zuen azken sentsazioa: oroitzapen bat.

# Egunon printzesa

Oihane Lopez Lasa
La Salle-San Jose ikastetxea
Beasain

Ezaguna zait jada aldizka nire besoaren eta zilarrezko paperez estalitako likido berdea gordetzen duen poltsa horren artean ezartzen duten lotura. Burdinaren zaporea mingain azpian, latex usaina eta gela goibel honen paretek duten lila kolorea. Azkenekoz etorri nintzenetik aldatu den gauza bakarra da orain pareta lila hauetako txoko batean Sorolla delakoaren pintura bat jarri dutela. Beharbada, pentsatuko dute koadro horretan ageri diren umeek eta itsaso zabalak argitasun printza bat emango digutela, baina egia esan, itsasoa ikusi baina sentitzen ez dugula onartzeak nire ustez goibelago jartzen gaitu zenbaitetan.

Aldiz, oraindik ere arrotz suertatzen zait orratzak nire zainean sartzean sentitutako ziztada. Loti Ederraren ziztada, goru madarikatuarena… Pozoi sendagarria nirean barrena barreiatu eta printze urdin baten muxuak esnatuko ez nauen betiereko lotara naramana, turbantedun burusoilak, goragaleak eta kortisona protagonista diren lotara…

Etorkizunaren kapritxoz egokitu zaidan zorigaitz hau Santa Luzia egun batean hasi zen, abenduaren 13 batean, orain dela bederatzi hilabete. Ongi gogoratzen dut, Gartzia

doktoreak Ben Afflecke-ren antza zuen, edo hori iruditzen zitzaidan niri behintzat. Egun hartan tronpa goraka begira zeukaten elefantedun gorbata orlegi bat zeraman. Iritsi bezain laster gela batera sartzeko gonbitea egin zigun. Lasai-lasai eseri zen eta honela mintzatu zitzaigun:

– Ditugun datuek Monikak bularreko adenokartzinoma bat daukala egiaztatu dute, hurrengo astean ebakuntza baten bidez eskuineko bularra eta besazpiko ganglioak kenduko dizkiogu, gerora aztertu eta ondorengo tratamenduak zeintzuk izango diren ikusteko.

“Adeno... zer? Nola? Bularra kendu? Minbizia esan al du? Ama... eutsi iezadazu eskutik. Amatxo, zure besoen artean kulunka nazazu haur txiki baten antzera, uxatu amets txar hau!”.

Bai, bularreko minbizia dut. Minbizia. Hitz beldurgarria, inork aipatzen ez duena. Badirudi ez esate horrek edo hitz hori ezeztatzeak guregandik aldenduko duela betiko. Eta aipatuz gero, amildegi batera bultzatuko zaituela… bukaerarik gabeko amildegi ilun batera…

Minbizia, min bizia, benetako mina, bizia hiltzerainoko mina ematen duena.

Bat-batean, aita txolarre, ile gabeko Sanson, Oz-eko lehoi... bilakatu zen erremediorik gabe; ama berriz, mutu, gatzezko estatua bailitzan…

- Baikor izateko arrazoiak ugari dira, 70 zehazki, izan ere fase hauetan diagnostikatzen diren bularreko minbizien %70 sendatu egiten dira. Eta kasu hauetan bizi esperantza oso handia da. Lasai, Monika, esku onenetan zaude.

Hirurogeita hamar arrazoi, nik ehunka ditut zure baikortasuna amildegitik behera botatzeko: nire bizitza, hamasei urte…

Nola esan jendeari minbizia dudala? Ene Monika… Monika gaixoak minbizia du. Neure burua Ausoniako iragarkian bezala, lazo arroxa bularrean eskegita eskolara joan eta denak aurpegia malkoz beteta agurtzen duten emakume hura bailitzan imajinatzen dut. Patetikoa!

Abenduaren hamahirua, nire mugikorra mezuz bete da ia watsapa kolapsatzeraino… Martarenak 230, Alexenak 50, "koadrila galantarenak" 125…

Martari eman nion notizia, bera izan zen jakiten lehena; bion artean ez zen apenas sekreturik… bere aita hil eta bere ama bera baino 10 urte gazteago zen gizon batekin ezkondu zenean, ni izan nintzen konfiantzako laguna. Nirekin banatu zituen beldurrak, tristurak eta zalantzak. Bion artean erabaki genuen ezkontzarako zein soineko eta zapata eramango zituen. Eta geroago gure amodiozko istorioak ere elkarbanatu genituen. Oraingoan bizitzak aurkezten zigun gudurako burkide izaten jarraitzeko eskatuko nion, izan ere bera zen garaipenaren zutoihala hobekien eramaten zekiena. Hala ere nik emandako berriak erasan egin zion eta, hunkiturik, mutu eta gor gelditu zen…

"Aizu, Monika! Hau Martaren jolas bat besterik ez bada, joan zaitezte biok antzarrak ferratzera" idatzi zidan Alexek erabat zapuztuta. "Alex, benetan pentsatzen al duzu Martak horrelako zerbait asmatuko lukeela?" "Beraz... joder! Egia da! Eta zergatik zuri? Eta zergatik niri? Eta zergatik guri?" Horrelakoa zen Alex, nire Alex.

Hainbeste amets elkarrekin zirriborroan idatzi ondoren... Izango al genuen astirik horiek denak garbira pasatzeko?

Hurrengo egunak analisi, elektrokardiograma eta, batez ere, ziztaden artean igaro nituen. Eta Santa Luzia egunean hain urrun ikusten nuen ebakuntzaren eguna iritsi zen. Uste dut 16 urterekin, emakume askok beren bizitzan inoiz ateratzen ez duten ondorio batera iritsi nintzela orduan. Konturatu nintzen ez nuela bular bat kentzeak nire itxuran eragingo zuen aldaketari buruzko pentsaera izpirik ere izan, ordura arte behintzat garrantzia minbiziari eman bainion eta ez hura sendatzeko kendu beharko zidaten ezeri. Munstroa nire barnean zen eta hura hiltzea zen nire desioa. Berdin zitzaidan, hanka, besoa, bularra... edo belarria! Zeinen oker nengoen...

Donostian ginen, eta ospitale onkologikoa gure aurrean. Onko- logikoa, logikarik ba al du ba egoera honek? Bizitzaren katean: jaio, hazi, birsortu eta hil, non dago gaixotasunaren tronua? Adinduak gaixo daudelako hiltzen dira, zaharrak direlako. Baina ni oraindik kate horretako lehen mailan nabigatzen nabil, hazten ari den gaztea naiz… Non dago logika? Amesgaizto ilogikoa…

Hari so geratu nintzen une batez, edo behar bada hura geratu zen niri begira. Sarreran izena eman eta gurasoek muturra paperen artean sartzen zuten bitartean, lehen solairu hartan zegoen giroan murgildurik. Gaixotasun andreak beldur eta itxaropen hariz jositako tapakiz estaltzen ninduela sentitu nintzen.

Mediku batek nire logela izango zen hartara lagundu zigun, “prest zaude, polita?” esan zidan. “Prest? Nola prest? nor egon daiteke prest ebakuntza baterako?”

pentsatu nuen. “Jantzi kamisoi hau eta itxaron hemen, berehala etorriko da ebakuntza aurrera eraman behar duen medikua, nola da... A bai! Gartzia doktorea, ezagutzen duzu, Monika, ezta?” Bai, ganorabako bat, izan zen nire ahotik atera zen hitz bakarra.

Nire gurasoei agur esan nien edo, hobeto esanda, haiek esan zidaten niri “Agur printzesa, orain arte”.

- Hona hemen eskualde honetako neskarik xarmantena –agurtu ninduen nire “Ben Affleck” partikularrak, bere betiko patxadaz. Ez zeraman gorbatarik, horren ordez pijama antzeko bat zeraman jantzita eta buruan bost urterekin pirataz jantzi nindutenean neraman zapiaren antzeko zerbait. “Bai, neska xarmanta, bularra kendu behar diozuen neska xarmanta..”. Eta orduan... Ziztada bat...

- Ea, Monika, zenbatu atzekoz aurrera hamarretik batera.

- Hamar, bederatzi, zortzi, zazpi... Ene Jesus, zaindu nazazu, Jesustxo ni bezalaxe haur txikia zara zu, horregatik maite nauzu eta nik maite zaitut. Bihotz bat beteta…

Loa etorri zen, eta gero esnatzea. Printzerik gabeko Loti Ederraren esnatzea…

Begiak irekitzean sentitu nuen mina munstroa barrutik atera izanak sortzen zidan lasaitasunarekin nahastu zen.

Ospitalean igarotako egunak ez ziren Maria Cristina hoteleko egonaldia bezalakoak izan, inondik inora. Ezin nuen lorik egin, Mari Angeles izeneko erizaina orduro agertzen baitzen nire ohearen alboan “Minik ba al duzu? Zerbait behar al duzu?” Egunak aldiz jasangarriagoak suer-

tatzen zitzaizkidan, batez ere nire lagunen mezu, argazki, marrazki eta kontuei esker, beraiek ziren logela itxi haren eta kanpoko munduaren arteko ate bakarra, eta baita nire irribarrearen margolaririk sutsuenak ere. Printzesa banintz bezala tratatzen ninduten. Bular bakarreko printzesa.

Alexek abestiak bidaltzen zizkidan, poesien ordez... “Begiratu atzean, ortzi-mugak sutan, gure begien zerutan, begiratu maitea amildegi ertza, biziak hila ametsa…”.

Egunek aurrerantz egin zuten, zauriak itxi zitzaizkidan eta denek hain berezitzat zuten irribarrea pizten zihoan poliki-poliki. Egun hura... Bendak kentzeko eguna iritsi zen arte. Izan ere orduantxe konturatu nintzen munstroa joana zela, baina bere bidean suntsitutako guztia agerian geratu zela. 16 urteko neska baten bularraren lekua orbain izugarri batek bete baitzuen. Ebakuntza baino lehen erakutsitako ausardia guztia lurrundu zen istant batean, begiak ongi zabaldu eta ispilu gardenaren aurrean nire burua ikusi nuenean. Ni naiz benetako munstroa...

- Lasai, maitea, hemendik denbora gutxira berreraikuntza bat egingo dizute, galdutako bularra berreskuratuko duzu –esaten zidan amak. –Lasai? Ni oso lasai nago, tristura da momentu hauetan hartuta nauen sentipen bakarra. Triste nago, neure buruarekiko pena daukat, nahigabea, tamala… Hori gutxi balitz, eta jada etxera joateko egun gutxi geratzen zitzaizkidanean, “Ben Affleck” doktoreak beste hainbat malkok nire aurpegia bustiaraztea eragin zuen, kontatzen jarrita, hamargarren aldiz. “Malko haiei esker orain itsasoa gara…”

Gorroto dut helduek berri txarren bat eman behar didatenean, nire izenez deitzea. Niri askoz gehiago gustatzen zait

amatxok egiten duen moduan, denek maitea deituko banindute. Nire izena gustuko dut noski..., baina entzutean, ondoren ezbeharren bat etorriko dela pentsatzen dut beti. Horrela jarraituz gero, noizbait hilzorian nagoela esan behar badidate, Monika Lopez Arnaiz deituko didate. Horretaz ziur nago...

- Ea Monika, esan behar dizudan hau..., nola esan..., latza gerta dakizuke. Ahal dudan zehatzen adieraziko dizut: zoritxarrez kendu genizun besapeko ganglioa ere gaixotasunak jota zegoela ikusi genuen, eta beraz, kimioterapia saio batzuk beharrezkoak izango zaizkizu.

- Baina, orain kimioterapia, ez al zaizue nahikoa iruditzen bularra kendu izana? Non daude orain baikor izateko 70 arrazoi horiek? Baikortasuna zuena da, medikuena, estatistikak maneiatzen dituzuenena. Eta nirea, non dago nirea? Nik ezin dut aurkitu. Gaztea naiz, 16 urte ditut, ez dut bularrik, eta orain… Eta orain zer, eta burusoil utzi nahi nauzue, mesedez, esaidazu non aurki dezakedan baikortasun izpirik..! –Ilerik gabeko eta bularra falta duen printzesa izango naiz orain.

Ene ALEX!!!... Marta, non zaude? Amatxo, esna nazazu amesgaizto honetatik… Eraman nazazu zure ohera eta abes iezadazu lo-kanta bat, beldurrik izan ez dezadan…!

Baina inork ez ninduen esnatu. Haize zurrunbilo batek adreilu horizko bide batek gurutzatutako paisaia batera garraiatu ninduen. Eta amari, aitari eta beldurrari eskua eman eta bide horretan zehar ibiltzeari ekin nion, ostadarraren atzean aurkituko nuen mirariaren bila.

Nire lagun Jonek teoria bat zuen, aspaldian argitu zidana: “Piruleta gorriak marrubizkoak dira beti, izozki

marroiak txokolatezkoak eta goxoki berdeek edonolakoak direla ere sagar zaporea dute". Ba... niri egun gutxiren ondoren ematen hasi zitzaizkidan substantzia berde hark ez zuen inolaz ere sagar zaporea, ezta sagar usainik ere. Sartzen hasi ziren hura Edurne Zuriri sorginak eman zion pozoiaren antzekoa zen, hura sagar erakargarri batez mozorrotuta ageri zen eta hau berriz sagar koloreko berde biziz.

Ziztadaren ondoren, likido hura nire zainetan poliki-poliki nola sartzen zen sentituz joan nintzen, igarotzen zuen zain oro erreta utziz. Horrek bi egun hartu zituen, baina ondoren etorri zirenetan, goragaleak eta konketa izan ziren nire lagun. Nire betiko labanda usain hura burdin- eta gonbito-kiratsa bihurtu zen. Eta nire aurpegian hain nabariak ziren muxu gorriak gardendu egin ziren.

Hirugarren saiora arte ez zitzaidan ilea erortzen hasi, gaztaina koloreko ilea nire sorbaldaren gainetik irristatuz joan zen, nire aurpegian irristatzen ziren malkoekin batera. Guztiz burusoil geratu nintzen arte.

Une hartan, nire bizitza Ederra eta Piztiaren ipuinean agertzen zen, usteltzen zihoan arrosa haren antzekoa zela pentsatzen hasi nintzen, laster nire izen eta bi abizenez deitu eta hil egingo nintzela esango zidatela.

Gaur arte.

Gaur nire hamabosgarren saioa da, jada, azkenekoa (Jainkoak hala nahi badu behintzat). Ostadarra geroz eta gertuago dago, baina adreilu horizko bidea latza eta luzea suertatzen ari zait. Aitak eta amak eskutik heltzen jarraitzen naute. Beldurrak hirugarren bidegurutzean alde egin zuen eta esperantzarekin topo egin genuen pago mardul baten azpian. Geroztik bera dugu lagun.

Orain nagoen burusoilen gela beretik pertsona desberdin ugari ikusi ditut joan-etorrian: emakume nahiz gizon, heldu nahiz gazte, txiro nahiz aberats... Horietako batzuk nirekin egon dira jasan izan ditudan saio guztietan, beste batzuk aldiz, bizpahiru aldiz nirekin egon ondoren, ez dira berriz hona agertu... Beharbada beste mundu baten parte izango dira orain edo... nork daki!

Ni behintzat hemen nago, ziurrenik ez ilerik eta ez bularrik ez duten beste hainbat printzesaren munduan.

# Faltan bota zaituela

Ainhoa Gojenola Urrutia
Lekeitio institutua
Lekeitio

Negu gorrian sartzekoak garen egun honetan ere hemen nago. Sukaldeko aulki zahar batean eserita. Leihotik kanpoaldea begiratuz eta aldi berean minuturo paretako erlojuari so eginez. Segundo bakoitza luze egiten zait. Minutu bakoitza amaigabe. Arratsaldeko laurak noiz iritsiko zain ematen ditut orduak leihotik begira. Egunero bisitatzen nauten kaio bakartien konpainian. Beste ezeren beharrik gabe eta aldi berean nire txikiaren irribarrea ikusteko premiaz.

Heldu da itxarotako ordua. Heldu dira arratsaldeko laurak. Aulkitik altxatu naiz, esfortzu handirik egin gabe, eta korridorean murgildu. Korridorearen muturrean dagoen gelara sartu naiz. Nire logelara. Bertara heldu eta segituan, denborarik galdu gabe, armairua ireki eta bertan esekita dauden jantziei erreparatu diet. Makina bat gona eta alkandora. Makina bat beroki. Makina bat bufanda. Hala ere, erraz bereiz daitezke nire lehen soinekoa eta azkena. Haurra nintzela amonak josi zidana eta eztei egunean eraman nuena. Biak ala biak kolorea galdurik. Urteen poderioz hartu duten kolore horixkaz estalirik. Denbora luzez egon naiz hauei begira. Badakit ez direla soineko hutsak. Nire bizitzaren oroigarri baizik.

Azkenean gona beltz bat eta alkandora horixka. Hau izan da nire erabakia. Honen gainetik jada zaharkiturik dauden beroki eta bufanda marroiak. Armairua itxi aurretik azken begiratua eman diet soinekoei. Oraingo honetan zerbait arraroa sumatu dut. Amonak eginiko soinekoaren poltsikoan zerbait dagoela iruditu zait. Eskua luzatu eta poltsikoaren barnera eraman dut. Zuzen nengoen. Zerbait dago poltsikoan. Orduan eskua poltsikotik atera eta konturatu naiz ene hatzen artean harrapaturik giltza bat dagoela. Nire haurtzaroko etxearen giltza.

Aurrena aurkitu dudan zapata parea jantzi eta eskuan giltza dudalarik irten naiz etxetik. Buruan hainbat oroitzapen. Urteak nire oroitzapenen ganbaran loak egon ostean, udaberrian loreak bezala berpiztu direnak.

Jada eskolako atarian nago. Nire biloba txikiaren zain. Oraindik goiz da umeak irteteko; hala ere, gutxinaka-gutxinaka jolastokia betetzen ari da. Guraso eta aitona-amona goiztiarrez, lehenengo. Umez, gero; eta azkenik, beti bezala berandu datozen gurasoz. Gaurkoan ere sei urtekoak izan dira irteten lehenak. Ondoren, zortzi urtekoak. Hauekin dator Ander. Irribarre erraldoia aurpegian marraztuta duelarik ziztu bizian. Korrika dator niregana. tximistaren pare.

Gaurkoan zerbait berezia egingo dugula esan diot Anderri eta buruarekin baietz erantzun dit. Irribarretsu. Nire amonak esango lukeen bezala, astoen moduan.

Gizaburuagan gaude; hala ere, memento honetan ez da herriaren arrastorik ikusten. Orduak igaro dira herria begi bistaz galdu dugunetik. Egun euritsuetan hodeiek eguzkia bezala, zuhaitzek herria desagerrarazi dutenetik. Orduak

igaro dira eta oraindik nire haurtzaroko etxearen arrastorik ez. Jada hurbil dagoen susmoa daukat; nahiz eta nire oinek berrogeita hamaika urte luzetan zehar bidexka hau ez zapaldu.

Bi orduz mendian gora ibili ondoren heldu gara. Heldu gara nire haurtzaroko etxera. Heldu gara Laxiar izeneko baserrira. Nire jatorrira. Nire oroitzapenen deserrira. Anderren eskua gogor estuturik esku batean. Bestean giltza. Baserriko atea eta nire oroitzapenen atea irekiko dituen giltza.

Begiak itxi ditut eta Anderren eskua gogor estutu. Laranja bati zukua atera nahi izango banio bezala. Orduan beste eskua luzatu eta giltza sarrailan sartu dut. Eskua eskuinerantz biratu eta “klak”. Atea ireki da. Segituan aroma bat. Makina bat urtean sentitu gabeko aroma bat. Nire amak egunero janzten zuen perfumearen aroma goxoa. Gaurkoan nire oroitzapenak janzteko balioko duen aroma goxoa.

1963ko urria. Gogoan dut garai hori. Atzo eginiko ezer baino argiago, edota duela bi minutu eginiko ezer baino argiago. Gogoan dut Laxiar utzi genuen garai hura. Gogoan dut nire haurtzaroa bukatu zen garai hura. Gogoan dut maite nituen guztiak galdu nituen garai hura. Gogoan dut. Baita garai hartan nire alboan egon ziren guztiak ere. Nire alboan egon zirenak eta nire albotik aldendu zirenak. Gogoan ditut.

Anderren eskua askatu gabe baserrian sartu naiz. Pauso bakoitzean oroitzapen bat. Oroitzapen bakoitzean pertsona bat. Pertsona bakoitzarengan sentipen bat. Guztira milaka sentipen, milaka pertsona eta milaka oroitzapen.

Lehendabizi sukaldean sartu gara. Han dago bazkaritarako erabiltzen genuen mahai handia. Han daude familia osoa jesartzeko behar genituen bederatzi aulkiak. Han daude. Ez da ageri gaur egungo altzari modernorik. Garai hartan aberatsak ginela sinestarazten zigun irratia besterik ez. Irrati zaharra. Urteetan melodiarik abestu ez duen irrati zaharra.

Etxean aurrera segitu dugu korridorean zehar. Hurrengo geralekua, egongela. Hotz egiten du garai batean beroena izan zen gela honetan. Garai batean familiaren maitasuna senti zitekeen gela honetan. Hotz egiten du. Utzi genuen tokian dago dena. Lekuz aldatu gabe. Zaharkiturik. Besterik ez.

Egongelaren erdian piano bat. Piano zahar bat. Garai batean etxekoen irribarrea ateratzen zuen pianoa. Hautsez estalirik. Poliki-poliki ibili naiz bere aurrean pausatu arte.

Hiruzpalau minutu eman ditugu aurrez aurre, bata besteari begira. Isilik. Ondoren pianoaren aurrean eseri naiz, bere gainetik begirada altxatu gabe. Hatzak luzatu ditut eta laztandu egin dut. Bere tekletako baten gainean pausatu dut hatz erakuslea. Urteak isilik eman ostean doinu bat atera da bere barrenetik. Nire barneko kordak bibrarazi ditu. Bizirik jarraitzen dudala demostratu dit. Azken aldiz bada ere.

Pianotik altxatu eta Anderren eskua estutu dut. Bere eskua gogor estuturik korridorerantz ematen duen atera hurbildu gara. Astiro-astiro. Bertara iristean ate izkinako markei erreparatu diet.

Gogoan dut Anderren adina nuen garai hura. Gogoan dut neba-arrebekin liskarrak izaten nituen garai hura. Ba-

tez ere orain gauden lekuan. Ate ondoan. Bertan biltzen ginen igandero neba-arrebetako garaiena izateko desioaz. Hanka puntetan jarriz edota bularra ateraz. Amonak neurtzen gintuen bakoitzarentzat kolore desberdineko margoa erabiliz. Haiek bai garaiak.

Berriz ere korridorean barreiatu gara. Oraingoan eskaileretan zehar goiko solairurantz. Gure logeletara. Garai hartan arraroa baldin bazen ere, bakoitzak bere logela genuen. Bakardadean egoteko bakoitzak norbere txokoa.

Nire logelara joan gara zuzenean. Korridorearen erdian dagoen gela txikira. Bertan sartzea nire haurtzarora bueltatzea izan da. Nire oroitzapenen sorterrira. Ez naiz gela honetara berrogeita hamaika urtean sartu. Ez dut berrogeita hamaika urtean gela honetako zorua zapaldu. Azken aldiz duela berrogeita hamaika urte.

Aitaren agindupean utzi genuen baserria. Aitaren agindupean banatu zen familia. Aitaren agindupean. Berak zioen ez zela lanik geratzen baserrian. Berak zioen inguruko jendea baserri guztiak uzten ari zela, familiak banatzen, hirira joaten. Gurean ere berdin gertatu zen. Gu ere lan bila hirira joan ginen. Gu ere banatu egin ginen. 1963ko urrian. Banatu betirako. Harrezkero birritan egon naiz familiarekin kontaktuan. Aitaren hileta egunean bata, amarenean bestea.

Nire logelako ohean eserita. Anderren alboan. Hainbat oroitzapen buruan eta malkoak begietan. Aspaldi sentitu gabeko sentsazioa. Gela guztia miatu dut. Ezer askorik ez. Pare bat panpina eta hiruzpalau soineko. Berriz ere ohean eseri naiz lurrera begira. Zerbait dago lurrean. Orri zahar bat dirudi. Gerria tolestu eta papera lurretik jaso dut.

Gutun-azal bat da. Harritu egin naiz. Ez nuen espero halakorik aurkitzea. Ez hainbeste urteren ostean. Gutun-azala ireki eta gutuna atera dut. Anderrek ahoz gora irakurtzeko erregutu dit eta nik horrela egin dut. Gutun laburra da. Honela dio:

*Laxiarren, 1964ko urriaren 22an.*

*Gabon, nire printzesa:*

*Badakit berandu dela gutun hau idazteko. Idazteko ez bada ere bidaltzeko bai behintzat. Badakit urtebete pasa dela joan zinenetik eta seguruenik ez zarela gehiago bueltatuko. Hori guztia badakit. Hala ere, hemen bizi zinen bitartean ez nuen adorerik gutun hau zuri emateko. Sentitzen nuen guztia zuri aitortzeko. Urtebete geroago hemen doakizu nire gutuna.*

*Inork ez bezala ezagutzen zaitut; hala ere, behar-beharrezkoa iruditzen zait sekula ikusi ez nauzula eta ikusiko ez nauzula argi uztea. Gutun tradizional guztietan bezala nola zauden galdetzen has naitekeela uste dudan arren ez dut horrelakorik egingo; izan ere, gutun honen bitartez nire bakardadea adieraztea dut helburu.*

*Atzo balitz bezala oroitzen dut nire erruz negar egin zenuen lehen aldia. Zure malko gardenak masailean behera irristatuz, erreka txiki bat bezala. Atzo balitz bezala oroitzen dut nire erruz esna igaro zenuen lehen gaua. Beldurturik zinen eta begiak erne zenituen, gautxori kume baten gisa. Hainbat oroitzapen. Batzuk jada erdi ezabatuak.*

*Garai haiek oso ilunak izan ziren niretzat. Ezin nuen ulertu nolatan beldurtzen zintudan hainbeste. Ezin banuen*

*ulertu, onartu are gutxiago. Hala ere, denboraren poderioz, ikasi dut ezagutzen ez dugunaz beldurtzen garela, inoiz ireki gabeko ate bat ireki eta zeharkatzeaz.*

*Inor ez bezala ezagutzen zaitut, zure algarak eta irriak entzun ditudalako, zure saminak sentitu eta gauero zure bihotz erraldoiaren taupadek nire barrenak nahasten dituztelako. Jada ez zara nire beldur eta horregatik ahaztu egin nauzu. Hala ere, noizbait bakarrik sentitzen bazara zure ohe azpian begiratu baino ez duzu egin behar. Han egongo naiz ni zuri itxaroten eta zuri nire bihotzeko zati bat eskaintzeko prest.*

*Noizbait bueltatuko zaren itxaropenarekin.*

*Zure ohe azpiko munstroa.*

Gutuna askatu gabe ohetik zutitu eta lurrean etzan naiz begiak malkoz beterik. Ohe azpira begiratu dut. Ezer ez. Ez da nire munstroaren arrastorik. Orduan berriz ere zutitu eta ohe gainean eseri naiz. Anderri eskutik heldu diot. Gogor heldu benetan eta honako hau xuxurlatu diot belarrira: Nire txikia, ene laztana, zaindu ondo daukazuna, borrokatu hortzez maite dituzunak ez galtzeko; izan ere, ez gara daukagunaz ohartzen galtzen dugun arte.

Momentu horretan Anderrek muxu eman dit kopetan eta zutitu egin da. Bera ere nik eginikoa imitatuz lurrean etzan eta ohe azpian begiratu du. Pare bat minutu geroago begiak dir-dir egiten diotelarik zutitu eta honela esan dit:

- Amona, norbait dago zure ohe azpian!

- Nor dago ba? – Erantzun diot irribarrez.

- Ez dakit. Baina zerbait dio. – Esan dit Anderrek ia garrasika.

- Ea laztana, zer dio? – Galdetu diot masailak laztantzen dizkiodan bitartean.

- Faltan bota zaituela.

# Silueta dantzaria

Irene Cano Sanchez
Axular lizeoa
Donostia

Gauero bezala argia dago aurreko etxean. Eta gauero bezala, han dago zure silueta, logelako leku batetik bestera dantzan. Zortzi urte auzotegi berberean bizitzen eta oraindik ez dut inor ikusi, ez sartzen ezta ateratzen ere zure etxetik. Baina badakit han zu bizi zarela, gau guztietan argia pizten baituzu, niri han zaudela erakusteko. Inoiz elkar ikusi ez arren, badakit iluntasunean bihotz bakarti bat aurkitzeko premia duzula.

Eta ni zure etxetik 20 metrora nago, zure bekatu eta zorigaitz guztiak jasateko prest. Tamalez, ez da inoiz une egokia heldu. Egun asko igaro ditut leihotik begira norbait azaldu zain, baina alferrik. Etxe hartan ez da inoiz egon inolako bizitzaren arrastorik. Hala ere, ez dut uste inoiz itxaropena galdu behar dudanik, konpondu ezineko txotxongilo bizigabe bat bihurtzeko arriskuan bainago.

Agian inoiz ezagutuko ez dudan silueta bati gogor atxikitzeko grinak ekarri nau gaur egungo egoerara. Nire inguruko guztiak kanporantz bizi diren bitartean, ni barnerantz bizi naiz eta horrek egiten nau hain desberdin. Ez dut gizartean ahokatzeko gaitasunik. Baina ez naiz

kexatzen, pertsonak zure munduan sartzen uzten dituzunean, errukirik gabe txikitzen dutelako. Salbuespenak salbuespen, noski.

Mundu itsusi honetan pertsona zintzoak ere badaude, nire gurasoak, esaterako. Elkarri begiratzen dioten bakoitzean, itsu batek eguzkia lehen aldiz ikustean izango lukeen sentsazioa hauteman daiteke. Beharbada horregatik dira mundu osoan gogokoen ditudan pertsonak. Jakin ezazu ez naizela ematen dudan mutiko ahula, oso ausarta bainaiz. Oso kementsua izan behar baitzara egunero etxetik ateratzeko, inork ez badu gustuko nolakoa zaren.

Litekeena da eskutitz hau zure eskuetara inoiz ez heltzea, baina premiazkoa da zugatik sentitzen dudan guztia paper zati honetan idaztea. Hala, bakardadeak ez nauelako hain erraz harrapatuko.

Duela hilabete batzuk, beharbada ez duzu gogoratuko, baina zure silueta dantzaria ferekatzeko sekula baino hurbilago egon nintzen. Leihotik begiratzeaz aspertuta, aurpegi gabeko emakumeari mozorroa kentzeko unea zela iruditu zitzaidan. Erokeria bat iruditu arren ez dizut inoiz aurpegirik ipini, nire kimera bizienetan ere ez. Hain zuzen ere, bizitzan gozatzen ditugun gauza ederrenek ez dute itxura fisikorik; haizeak, txorien kantuek, muxuek… Pertsona ororentzat ezezagunak izateak egiten ditu hain ederrak. Zure moduan.

Bizitzan zerbait nahi izanez gero, ezin duzu amore eman, ez baitzara inoiz galtzaileen labirintotik aterako. Ni galtzailea izateaz nekatuta nengoen. Eta zentzugabekeria bat zela pentsatu ordez, ataria zeharkatu eta nire izuak lurrera erortzen utzi nituen, neure burua zure etxe ilunaren aurrean jarriz. Une zehatz hartan, nire bizitza lainotzen zu-

ten hodeiek ihes egin zuten eta nire begi lausotuek berriz argia ikusi ahal izan zuten.

Txirrinari sakatu nion, baina zaratak oihartzuna egin zuen eta bakardadean ito egin zen, 10, 15, 20 minutu igaro ziren eta inor ez zen atera. Mundua puskatu egin zen nire begien aurrean. Berriro, etsita, bira eman nuen, baina leihoaz bestalde zerbait sumatu nuen; ez ziren nire irudipenak izan, gortinei eusten esku bat zegoen, inoiz ikusitako ederrena, zuri-zuria, mehea eta hatz luzeduna. Adar zurien artean, zeru goibelaren dirdira bakarraren antzekoa zen esku hura: ilargia. Orain ez nagoela burutik sano pentsa dezakezu. Baina lehen esan dizudanez, ni ez naiz gainerako pertsonak bezalakoa. Ez dut zure gorputzetik zentimetro eskasetara egon behar zugan dudan premia asetzeko. Niretzat zure eskua ikusteak askoz gehiago adierazten du.

Handik aurrera burua galtzeko ametsak nituen gauero, guztiak berdinak: XVIII. mendeko areto erraldoi batean geunden dantzan emakume bat eta biok. Emakumeak kapa luzea zeramanez soinean, haren esku biluziak soilik ikusi zitezkeen, inoiz ikusitako ederrenak, ilargiarenak: zureak. Itzalek oraindik zure aurpegia estaltzen jarraitzen zuten.

Nire obsesioak hainbeste areagotu zuen nire eguneroko autismo egoera, non egun osoak igaro nituen begiak leihotik aldendu barik. Etengabeko guda zen, zure silueta dantzariarekiko nuen maitasunaren eta neure buruaren zentzuzko arrazoimenaren artekoa. Ez dut uste zaila izango zaizunik irabazlea igartzea. Nire arrazoimenari geratzen zitzaion bizia guztiz desagertzea lortu zenuen. Leiho ondoan egunak pasatzearen ondorioz, kaleko jendearen kontrol osoa nuen, baina ustekabeko egun batean norbaitek eskutitz bat utzi zidan atean, honela esaten zuen:

“Nire denbora amaitzen doa, lore hau bezala zimeltzen joango naiz, haren azken petaloa jaustean, nire arima ere jausiko da, betiko desagertuz. Eskerrik asko nire dantzen behatzailea izateagatik eta nire bihotz bakartiak bilatzen zuen laguntza izateagatik. Barkatu guztiagatik”.

Eskutitzak lore bat zekarren. Momentu hartan 10 petalo zituen, jadanik 9 jausi dira. Eskutitza heldu zen unean horman 3 hitz idatzi nituen: ilargiaren eskuen bila. Ondoren koaderno bateko orri batean idatzi nituen hitz horiek, gero koaderno osoa bete nuen, egongelako horma guztia bete nuen, etxeko horma guztiak, kalekoak, eta orain, burua guztiz galduta, herriko kale guztiak 3 hitzez osatutako esaldi batez estalita daude.

Zergatik egin didazu hau? Sudurra behar ez den lekuan sartu al dut? Mindu egin zaitut? Ezin didazu hau egin, ezin zara orain joan. Behar-beharrezkoa zaitut, zugan pentsatzeak orainalditik ihes egitea errazago egiten dit. Zortzi urte igaro ditut zeure gau-dantzak ikusten eta ilargiaren esku ederraren benetako jabea nolakoa izango den pentsatzen, baina orain ez naiz galtzaileen labirintotik inoiz aterako.

Une honetan egongelako leihoaren kontra eserita nago, zeure gau-dantzak ikusteko ohiko behatokian, zuk oparitutako loreari so. Oso bitxia da zure azken arnasa zimeldutako petalo bakarreko lore baten menpe egotea. Egia esan, ez da hain bitxia, zure inguru osoa oihal beltz batek estaltzen baitu. Erantzun gabeko hainbat galdera ditut buruan… Nola duzu izena? Seguruenik antzinako jainkosa baten moduko izena izango duzu. Zenbat urte dituzu? Ziur, zure arimak urte ugari bizi izan arren, jaioberri baten edertasuna gordeko duzula. Nondik zatoz? Ez dut sekula zure jatorrian pentsatu, bidegabekeria bat iruditzen

zaidalako nire buruak sortutako irudizko emakume batez maitemintzea.

Logelako argiak piztu berri dituzu. Gutxienez, petalo hau jausi baino lehen, zutaz gozatu dezaket, gau bakar batean izan arren. Uste dut tristura izkina ziztrin batean uzteko unea dela. Azken aldiz niretzat dantzatuko duzu, eta sentipen kontraesankorrek nire barnea gutxika suntsitu arren, bost zentzumenak zugan behar ditut. Gaur azken gaua da, baina gau osoa gu biontzat bakarrik dugu.

Bihotza gainezka daukat eta nire gorputza zeharkatzen duen pozak leihotik altxarazi nau. Zelako traketsa naizen! Altxatzean loreontzia bota dut. Berandu izan baino lehen lurretik hartuko dut, zure loreak kalterik jasan ez dezan.

Berandu da, azken petaloa loreontziarekin batera erori da eta zure etxeko argia amatatu egin da… zure bizitzarekin batera.

# Itsasoko uraren gorabeherak bezala

Karmele Garatea Zaballa
Lekeitio institutua
Lekeitio

Badator, badoa, badator, badoa. Itsasoko uraren gorabeherak bezala, edota beti bidaian dabilen auzokidea bezala, zu ere bazatoz, bazoaz, bazatoz, bazoaz.

Ohiko egun luzeen gisara, 24 ordu luzez, 48 izango balira bezala, gaur ere leihotik begira nago zu noiz iritsiko zain, hainbeste desiratzen dudan unea noiz iritsiko zain. Baina egunero legez, gaur ere nire etxe aurretik igaro eta ez zara gelditu. Zure bizikleta zaharraren pedalei gogor sakaturik, abiadura bizian zoaz aurrerantz, euriari aurre eginez, etxera lehenbailehen iristea desiratzen.

Kaleko hotza, iluntasun beltza, euri latza, elur irristagarria. Maite dut negua, tristezia. Goibel dagoen bakarra ez naizela jakitearen sentsazioa.

Zu egunero ikustearen beharrak denboraren zentzua galtzera bultzatu nau. Bizitzeko premiazko betebeharretatik kanpo nago. Ez naiz gose, ez naiz egarri, ez dut atseden premiarik. Zure gorputz handi eta indartsuko aldaketak galtzeak beldurtzen nau. Begirada tristezia soilik dakarren kale horretan iltzaturik dudala igarotzen ditut gau eta egun luzeak.

Goizalde beltz eta ilun guztien gisara, postariak kalea zeharkatzen du. Inguruan alaitasuna ematen duen eguzkiaren koloreko gurditxoa iluntasunera bultzatuz. Bere txamarra urdina soinean, haizea alde edota elurra kontra duela.

Noizean behin, txirrina jotzen du, baina nik ez dut erantzuten, ez naiz altxatzen. Duela egun asko eseri nintzen lekuan jarraitzen dut, begirada leihoan tinko dudala. Orduan, beste norbaitek atea ireki eta postontzi guztiak elurraren koloreko gutunez betetzen dituela imajinatzen dut. Nirea berriz, hutsik dago, bere anaia bikia bezain hutsik, nire bihotza bezain hutsik.

Negu gorriko gau ilun eta hotz horietan, badago kaleko lasaitasuna apurtzen duen norbait. Ankilikotean dabilela, aurrerantz egin ezinik, iluntasunean murgiltzeari beldurra izango balio bezala. Tristezia latzari aurre egiteko botika gogorra, ron botila, eskuetan, kexu da. Begietatik irteten zaizkion errekatxoak gelditu ezinik, iluntasunean murgildu eta badoa, dinbili-danbala, oinak altxatzeko indarrik gabe, etxera iritsi nahian.

Eguzkiak bere energia bidaltzen digun egun argi baina hotz honetan, han doa. txapel beltzak baloi itxurako burua estaltzen dio. Betondo ilunarekin, pipa ahoan duela badoa elizara, bere igandeetako trajea soinean eta bere laurogei urteak lepoan daramatza. Gaur ere, umore txarrez, bazter guztiak madarikatzen ditu. Nik bezala, gehien maite zuen pertsona joan zitzaionetik ez baitu beste ezer egin.

Aulki beltz honetatik poliki-poliki tentetu naiz. Korridorean zehar, astiro-astiro, oinak altxatu ezinik komunerantz abiatu naiz, etxeko zapatilek lurra igurzten

zutela. Bainugelako argia biztu, barrura sartu eta nire buruari erreparatu diot ispiluan.

Ez dakit nor den ispiluko ximurdun emakumea, ez dut ezagutzen bertan ageri den atsoa. Ilea oso luzea du, kaleko iluntasuna bezain beltza, elurraren koloreko ile multzoak tartekatzen zaizkion arren. Aurpegi zimurtua du, negarrez beteta dauden begi indargabeak eta denbora luzean irribarrerik ageri ez zaien ezpainak daude bere aurpegian. Arrosa koloreko bata batek biltzen du bere gorputz okertua.

Gogoan dut nola gertatu zen dena. Lehenbizi ikusi zintudanean izan nuen sentipena, negar egiterakoan zenuen indarra, nire besoetan pausatzeko modua, kanikak bezalako zure begi beltzak, lurraren koloreko zure azal leun hura, zure arropa txikia. Gogoan dut bion arteko maitasunaren arrazoia: bizitza.

Gogoan dut Dominiketako lekaimeek azaldutakoa. Negarra, ohetik altxarazi zituena zure negarra zela, zure indarraren adierazpena. Gurasoek beraien ate aurrean utzi zintuztela, saski batean etzanda. Gustuko nuen sentipen hura, zure gurasoek utzitako hutsunea betetzearena, zure bizitza nirea baino gehiago maitatzearena.

Motzak ziren zurekin igarotako egunak. Egun bero eta koloretsuak. Argia eta zoriontasuna gure bizitzetan nabarmenak ziren egunak. Atzo izango balira bezala ditut gogoan.

Tente jartzen ikasi zenuen eguna; lehen hitza: “ama”; urtero gorantz egiten zuten zentimetroak; zure lehen bizikleta; lurra zapaltzerakoan zenuen indarra; lehen azterketa; lehen pirikorna; lehen neska. Gogoan dut lehen telebista, beltza, itsasoaren zabalerakoa eta zeru lainotua-

ren koloreko irudiak ageri zitzaizkion telebista. Telebista txatxua, gupidagabea. Tristeziara, negarrera, iluntasunera, mundu latzera, aulki beltz honetara ekarri ninduen telebista.

Zure irudia ate aurrean. “Banoa”. Atearen danbatekoa. Eguzkia beste egun batez ere lotara zihoan, azken aldiz nire bizitzan, ordea.

Horrela gogoratzen dut momentua: bat-batekoa eta inolako arrazoi edota azalpenik gabea. Eta danbatekoa. Azken danbatekoa, azken begirada. Nire barrenak apurtu zituen Big Bang handia, zulo beltzaren hasiera.

Eta orduan konturatu nintzen inolako azalpenik gabeko ihesaren arrazoiez: Dominiketako lekaime atxilotuaren argazkia egunkarian, zure antza zuen mutilaren aurpegia telebistan, zure irudia ate aurrean.

Errua, errua zen nire barrenak jaten zituena. Aldika izaten nituen zorabioen eragilea. Nire aurpegiko uholdeen arrazoia. Nire bizitza triste eta bakarti honen iturria. Gertatutakoaren ondorioa. Ume lapurtua zinela konturatu nintzenetik, gainetik kendu ez dudan sentsazioa.

# Bakardadearen itsasoan

Mikel Bilbao Burgaña
Ondarroa  institutua
Ondarroa

Portuko murruan dago Leire, ilegorria itsas haizeak mugitzen. Gustuko du bertan egotea, olatuek hor beheko harkaitzen kontra apurtzen ikusteak erlaxatzen du. Orduak igarotzen ditu harrizko eserlekuan, gainontzekoengandik bananduen dagoenean, urrunean, itsasoan ikusten den marra fin hura miretsiz. Ukitzen erraza dela ematen du, baina izatez eskuraezina. Bera neska arrunt bat izatea bezalaxe, itxuraz erraza, baina lortzen ezinezkoa. Bakardadearen itsasoan nabigatzen du, noraezean, lurra aurkitu nahian. Iraganean aurkitu izan ditu irlak, baina hurbiltzean lagun faltsuak baino ez zirela konturatu da, belar piloak, zapaltzerakoan hondoratu egiten direnak, bakarrik utziz badian, oraingoan txaluparik gabe, bakardadeak nola itotzen duen sentituz. Ezaguna du sentsazio hura, gehiegitan bizi ez arren nahikoa irla izan ditu. Orain benetako bat aurkitu nahi du. Itsaso hartan kostalde bat ikusi eta "lurra, lurra" oihukatu, porturatzean hondoratuko ez dena, eta batez ere harrapatu nahi duen bakardadearen itsaso hartatik babestuko duena. Benetako laguna, irla, besterik ez du eskatzen hain zaila egiten al zaio unibertsoari hori ulertzea? Gutun bat idazten ari da, irla hori aurkitzeko:

*“Bakarrik nago. Jada ez dut bereizten gaur edo bihar den, egun guztiak berdinak iruditzen baitzaizkit. Inork ez dit galdetzen nola nagoen edo zer den sentitzen dudana. Nire gurasoek ere ez, ni animatzen saiatzeaz nekatuta daude eta. Ez dut soluziorik. Inork bukatuko ez duen puzzleko pieza bat.*

*Inoiz ez dut benetako lagunik aurkitu. Barre eginarazten ahalegintzen den norbait edo nirekin negar egiten duena triste nagoenean. Erortzen banaiz, ni bakarrik igotzen naiz.*

*Nire hamabost urteetan ere ez dut izan mutil-lagunik; nola musukatzen edo besarkatzen dudan jakin nahi duen mutilik. Edo soilik nola barre egiten dudan ni poztea lortzen badu. Ondorio batera iritsi naiz: norbaitek zuku bihurtu du dagokidan laranja erdia.*

*Hori naiz ni. Nerabe inuzente bat, lurrean bere lekua aurkitzen ez duena, jada aurkitu duelako orri zuri batean eta kontatu gabeko istorio baten ondoan. Lerro gutxiko istorioa. Lerro aspergarriak, penagarriak, ordenarik gabekoak. Ulergaitzak. Ni bezala. Ez naute ulertzen eta latzena da inor ez dela ahaleginduko ni ulertzen”.*

Orriarekin paperezko hegazkina egin eta itsasora jaurti du, ea hegazkintxo hark lortzen duen itsasoko marra fin hura harrapatzea, edo irla batera iristea, gehiegi eskatzea ez bada.

– Naturarentzat kaltegarria da hondakinak uretara botatzea. –Han dauka beste norbait esaten gaizki egin duela. Ohituta dago, bizitzan ez du harro egoteko ezer egin, dena gaizki egiten du. Baina ez du bira eman eta emakume

horren errieta entzun nahi. Begi urdinak itxiz kalatxorien karranketan kontzentratu da.

– Txantxa bat zen, ez gaizki hartu, neska. Jarri al naiteke zure ondoan?

– Ez dio erantzungo, ez dauka gogorik. Neskaren erantzunik ezean, bere ondoan eseri da.

Etxera iritsi denetik ezin du barre txiki hura kendu oreztadun aurpegitik. Bere monotonia hautsi duen zerbait gertatu da azkenik. Aitziber ezagutu du lehen, portuan. Esan dionez bera ere baztertua sentitzen da. Nahiz eta neska irekia izan, aurpegiko pikorrengatik jendea ez zaio gehiegi hurbiltzen eta berarekin sartzen zirenez, herriz aldatzea erabaki zuten. Ondarroa apur bat ezagutzen ari zela topatu du eta lagunak egiteko aukera ona iruditu zaio. Gustu eta pertsonalitate nahiko antzekoak dituzte. Eta, ikusi duenez, arropetarako ere bai: marrazkirik gabeko arropa, deigarria den ezer gabekoa. Biharko berriro geratu dira, leku berean, elkarren konpainia hutsaz gozatzeko. Bazen ordua zerbait ona gerta zedin bere bizitzan, azken urteotan bizi izan duen baztertzearen ondoren, pozik izateko itxaropena ere galdua zuen. Egia esan, surrealista iruditzen zaio egoera. Benetan gerta daiteke horrelako zerbait? Baina egia izatea nahi du, behar du. Horregatik baztertzen ditu pentsamendu horiek, pozik dago, bizitzan gutxitan egon den bezala, eta ez du nahi hori aldatzerik.

– Arratsalde on, ilegorri! –Iritsi da, azkenik. Pare bat minutu zeraman zain eta uste zuen ez zela agertuko, bakarrik utziko zuela, hor, botata, gainontzekoek beti egin duten bezala. Baina agertu da, hor dago, bere aurrean. Urteak zeramatzan horrelako momentu baten zain, eta orain ez daki

zer esan. Zerbait gaizki egiten edo esaten badu agian joango da, baina ez badu ezer esaten bitxia dela iruditukο zaio.

– Ez duzu gehiegi hitz egiten, ezta? Lasai, ez dut koska egiten. –Ez daki nola, baina atzo lez irria ateratzea lortu du.

– Ez nago ohituta jendearekin hitz egitera, lotsatu egiten naiz. – Eta ez dauka lagunik, baina ez dio esan nahi. Eta badauka beste arrazoi bat. Orain dela urte batzuk bi lagun (edo hitz egiten zioten bi neska-mutil) zituen: Gorka eta Garazi. Egun batean, *Caidos*en zegoela, talaiaren azpiko behatokian, beltzez jantzitako ninja bat ikusi zuen zuhaitz artean. Lagunekin ikustera joan zenean ez zegoen. Hirugarren aldian lagunak aspertu eta txoratuta zegoela esanik hitz egiteari utzi zioten. Harrezkero noizbehinka ikusi izan du, ezkutatuta, zelatan egongo balitz bezala, baina inori ez dio ezer esan, ez du berriro egoera berdinetik igaro nahi.

- Badakit zuk ere ez duzula lagun gehiegi, ez dio axola, beraiek galtzen dute. Eta ez dakite zenbat gainera. –Biek dakite euren burua engainatzen dutela, baina errazagoa da hori esatea egiari aurre egitea baino. Pentsamendua irakurri diola ematen du, baina ez dio axola, zoriontsu dago. Gustuko ditu neska haren begi marroiak, bizitasunez beteak. Eta are gehiago bere hitzak, olatuek harkaitzak bezala, hitz haiek pixkanaka-pixkanaka bihotza biguntzen eta sentimenduz bustitzen diote. Eta gogoko du sentsazio hura, maitatua izatearena, edo kontuan hartua izatea behintzat. Elkarrentzako eginak daudela ematen du, azkenean unibertsoa konturatu da inor ezin dela bakarrik bizi, denok behar dugula norbait, ulertzen gaituena, erortzen garenean, igotzen lagunduko gaituena, eta ulertaraziko diguna, beti egongo dela puzzlea bukatuko duen norbait.

- Zerbait egingo al dugu? –Gustuko du Aitziber, baina aspertzen hasia da, eta lagun bat izanik aprobetxatu nahi du.

- Zergatik ez dugu hemendik ihes egiten? Ez daukagu lotzen gaituen ezer. Edonora joan gaitezke. –Benetan esan al du? Atzotik elkar ezagutzen dute eta jada biek batera ihes egitea nahi du. Gainera, nora joan behar dute, hamabost urteko neska ziztrinak baino ez badira. Ez daukate inora joateko baliabiderik. Orduan ezerezetik irtendako olatu handi batek, murruaren kontra hautsiz, neska biak blai eginda utzi ditu. Uraren hotza hezurretaraino sartu zaie eta Leireren etxeranzko bidean biak doaz dardarka.

Eskailerak igo baino lehenago Leirek ateko txirrina jo du, ziurtatzeko etxea hutsik dagoela, bestela gurasoek pelikuletako itaunketa bat egingo diote. Inork erantzun ez duenez, biak abiatu dira eskaileretan gora, batak etxeko giltzak ateratzen dituela. Baina atea irekitzearekin batera sukaldeko erauzgailua eta *Radio Maria* entzun dute, ama etxean da.

- Kaixo, ama! –Eta korrika, biak, neskaren gelara sartu eta atea itxi dute haien atzean. Armairua irekiz mintzatzen hasi zaio. –Tori, nahi baduzu utziko dizkizut nik arropak, aukeratu nahi dituzunak –eskuekin armairua seinalatuz banandu da. –Toalla batzuen bila noa, oraintxe nator.

Itzultzean, neska arroparik gabe aurkitu du. Gorritu egin da, masailetan nabaritu du, erretzen sumatzen ditu. Beste aldera begiratuz toalla eskaini dio. Eta besteak gorputza inguratzen zuelarik bera ere eranzten hasi da. Lotsaz hil beharrean dago, ez dauka kurbarik, titiak oraindik ez zaizkio hazi.

Lehortu eta jantzi dira. Eta orain biak daude Leireren ohean hitz egiten. Aitziberrek bere xarma dauka mintzatzeko orduan, denari grazia apur bat ematen dio, momentu deserosoak saihestuz.

- Orduan, etxetik irten nintzen korrika eta mendian galdu, hain nengoen haserre ez nuela begiratu nondik nindoan. –Barre algarak bien aldetik. Sukaldeko zaratak isildu dira, eta isiltasuna gelaz jabetzen zegoela ikusirik, hitz egiten hasi da Leire.

- Bada, nire zortzigarren urtebetetzean, gurasoei entzun nien esaten bi lehengusinei ordaindu behar izan zietela festara etortzeko. Hain sentitu nintzen minduta, bietako batengana hurbildu eta ileetatik tiraka hasi nintzela. Azkenean denak gaizki irten zuen, eta ordudanik ez dugu hitzik egin. –esanaz batera konturatu da hanka sartu duela, istorio hura ez da barregarria eta giro etxetiar hura hoztu du. Besterik esateko denborarik eman gabe, atea ireki da bat-batean eta ama sartu. Gorroto du bere amak daukan apeta hura. Atea jo gabe leku guztietan sartzea, komunean dagoela ere berdin egiten du. Etxe hartan inork ez dauka intimitaterik.

- Norekin ari zinen hizketan? –itaundu dio amak, gela begiradaz miatuz.

- Ama, Aitziber. Aitziber, ama –aurkeztu ditu neskak, Aitziber seinalatuz. Ez zaio gustatzen egoera hura, larriegia bere gusturako. Ama alabak seinalatutako lekura begiratzen ari da, baina Aitziberren atzean dagoena begiratzen dagoela dirudi. Aurpegia serio jarri zaio eta mintzatzerakoan ahotsak dar-dar egiten dio.

- Maitea. Hor ez dago inor.

# Eguzki ederrenaren negu usaina

Maddalen Irigoien Kortabitarte
Lekeitio  institutua
Lekeitio

“Denborak dena sendatzen ez duelako, buruan zaituztedanoi, zuoi:

Bakoitzak bere istorioa du. Leku bat mundu honetan. Istorio horiek, luzeak edo laburrak izan daitezke. Hala ere, helburua ez da amaierara iristea. Helburua ez da ahal beste orri zuri janztea. Helburua bidea amaitu bitartean egindakoarekin harro egotea da.

Gehienetan, ordea, labur geratzen diren istorioak min handiena ematen dutenak dira, amaiera gabe geratzen direnak baitira. Hain orri gutxi dituzte, non ez dagoen istorioa segitzeko formarik. Hori da nire kasua.

Kartzela bateko gela ilun batean dagoen pertsonaia bat da nire istorio motz honen protagonista. Egunak eta gauak gatibu igarotzen dituen pertsonaia. Bere buruaren beldur dena.

Preso nago, bai. Baina nire sufrimendua ez du inork sentitzen. Ez du inork aditzen. Ikusezina naiz. Ikusezin bilakatu nintzen.

Gau ilun, isil eta lasaietan ditudan ametsak dira txarrenak. Gau ilun, isil eta lasaietan agertzen zaizkidan iraganeko mamuak dira gaiztoenak. Aurpegi gabeko mamuak dira. Izate guztia galdua duten mamuak. Kontzientzia barrenetik atera nahi nautenak. Mendeku bila datozenak.

Badakit ametsetan islatzen dena ez dela erreala. Ez dagoela inongo mamurik eta lelokeria hutsa dela zirtzilkerietan sinestea.

Ametsetan agertzen zaizkidan mamu horien garrasiak entzun ditzaket. Azalean sentitzen ditut. Isilarazien garrasiak dira. Zarata ozenena baino altuago entzuten direnak. Buruan sartuta dituzunak. Etengabe barrena jaten eta bihotza usteltzen ari direnak. Damu naiz.

Baina mamu horiek ezagunak dira. Aurpegirik ez duten arren, tatuaturik izango banitu bezala igartzen ditut. Azala baino barrurago sartuta ditut, banan-banan.

Neskatxa gazte baten begi urdin ederrak ikusten dizkiot izaki ikaragarri horietako bati. Beste bati, mutiltxo txiki baten aurpegi errugabea, negarrez. Eta honela, beste ehunka pertsonaren sufrimendua pairatzen dut gauero. Negarrez ari dira. Malkorik gabeko negarra, malkoak odol bihurturik baitaude.

Eta orduan, gau hura suspertzen da nire buruan. Etengabeko oroitzapenen espirala berpizten da.

Kontrola galdu nuen. Orduan ere amesten egongo banintz bezala oroitzen naiz. Oroitzapenak distiratsuak dira.

Jendea garrasika entzuten dut. Alde batetik bestera korrika. Barrena lehertzen duten garrasiak dira. Tiro bat baino hilgarriagoak. Zauri bat baino mintsuagoak. Jendea zoratuta ikusten dut. Amorruz beteriko begiez begiratzen nauten bitartean. Etsita eta zer egin jakin gabe.

Orduan, nire etsaia agertzen da ametsean. Niri begira dagoela dirudi. Bizia eman diodalako. Nik piztu dudalako. Irribarre egiten didala esango nuke. Nirekin oroitzen da, ametsetan ere erreala dirudielako, sekulako sugarrak korridorea laztantzen duela.

Beldurra hezurretaraino iristen zait. Berari begira geratzen naiz. Ezin naiz mugitu. Begiak bertan finkaturik, begiak bertan preso. Zer egin dut?

Aurrerantz doa. Gutxika. Jendea dagoen lekurantz mugituz. Jendea zoratuz eta bere onetik ateraz. Gutxika. Ez du presarik. Melodia baten menpe egongo balitz bezala, erritmoa jarraitu nahian, dantzan dabilela. Ez du gupidarik, ez baitu bihotzik.

Neska gazte bat dut aurrez aurre. Begirada hori bihotzean iltzatuta geratu zait. Banatzen gaituen kristal xume hau zatitzeko gai izango balitz bezalakoa da.

Suak bere istorioko azken hitzak idatziko ditu.

Momentu horretan, nire bizitza infernu bilakatu zen. Neure burua inorena izango balitz bezala ikusten nuen. Sute hori pizten zuten eskuak ezezagunak izango balira bezala. Ez naiz gogoratzen. Baina alde egin ordez, bertan geratu nintzen. Berandu zen jada. Begirada suaren menpe nuela, burua galduta.

Arima lapurtu nien eta ni neu lekuko izan nintzen. Munstro bat naiz. Sufrimenduarekin elikatuko banintz bezala. Pixkanaka hiltzera behartuta zeudenen izatea lapurtzen. Pixkanaka itzaltzen ziren irribarreak sentitzen. Apurka-apurka eta banan-banan isiltzen zirenen garrasiak entzuten. Bizirik sentitzen nintzen; gustuko nuen.

Neure onera itzuli nintzenerako, aurrez aurre nuen atearen kontra zeuden aurpegiak malkoz blai zeuden. Aurpegi horiek ez ditut sekula ahaztuko. Errugabeak ziren. Nik eskuak odolez bustita nituen, zauriz beteta. Ez naiz gogoratzen. Oroitzapenak lausotuta ditut, baina ez basakeria hori ez ikusteko beste.

Ez nuen nahita egin. Ospitale hura gorroto nuen, jendearen sufrimendua eteteko egin nuen. Badakit ez daukadala barkamen posiblerik.

Ospitale zahar hari su eman nion. Ehunka pertsonaren ametsak desegin nituen. Ehunka familia apurtu nituen. Hemen bukatzen da nire istorioa. Soka soil batek amaiera emango dio nire bizi herdoilduari, kartzela honetako gela ilun batean. Gorroto dut neure burua. Erre zirenekin batera noa infernura, merezi dudan lekua delako. Bihotza erreta dudalako. Giltzapean ere, ezin naizelako begi haietaz ahaztu. Ez behintzat, bizi naizen bitartean.

Damu naiz".

Gogoan daukat kartzelatik eskutitz hau bidali zidaten egun hura. Negua hasi berri zegoen, eta jadanik zuhaitzak biluzik zeuden. Lehendabiziko elur malutak mara-mara erortzen ziren, oraindik udako berotasuna gordetzen zuen lurzoru epel hartara. Negu gogorra izango zenaren seinale zen.

“Bere buruaz beste egin du”, “suizidatu egin da” esaten zuen herriko jendeak. “Merezi duena da”, “gizadiari mesede egin dio” zen egunero entzuten nuena. “Munstro higuingarria”, “anker hutsa da” zen herriko leloa.

Baina ez zekiten ezer. Ez zekiten nire semea madarikatuta zegoela. Bizi zen bitartean ere, hilik zegoela. Nik soilik nekien nire semeari bihotza usteldu zitzaiola.

“Uzteko bakean! Ez dudala nahi!” entzun nuen gau hartan, konturatu nintzenean. “Ez dut esaten didazuna egingo” esaten zuen isilean, nik ez entzuteko, agian. “Bai! Amak maite nau! Ez diot minik emango!” oihukatu zuen bat-batean, norbaiti begira zegoela. Belarriak estali zituen indarrez, eta burua babestu zuen belaunen artean. Ohe gainean eseri zen garrasika, izugarrizko mina izango balu bezala.

Baina gelan sartu nintzenean, bihotz-taupadak gelditu zitzaizkidan. Ez zegoen inor horma zuriaren eta ume haren artean. Semeak bat-batean, garrasi egiteari utzi zion.

Deabrututako begiekin begiratzen ninduen; odola hozteko bezalako begirada hori, ez dut sekula ahaztuko. Baina begirada horrek zeharkatuko banindu bezala iruditzen zitzaidan. Beste norbait izango banintz bezala, mutiltxo haren begietan. Zutik jarri zen eta gutxika hurbiltzen zitzaidan bitartean, doinu bat ahapetik kantatzen hasi zen.

Urteetan zehar, ezagutuko nuen doinu hura, benetako heriotza-abesti bezala.

Ospitaletik garrasika eta korrika atera zeneko eguna etorri zitzaidan burura. Ez zuela sekula gehiago pilula eta botika higuingarririk hartuko zioen. Orduan, hainbeste urte

pasa eta gero, lehen aldiz ikusi nuen irribarretsu. Espejismo hutsa zen, barearen ostean zetorren ekaitza geldigaitza baitzen.

Doinu hori abesten zuen etengabe. Bere lagun-minak irakatsi ziona, alegia. Bere gelan zegoena eta ez nintzena ikusteko gai izan.

Gorroto dut egun hura, gaixotasun hark partida irabazi zidan eguna izan baitzen. Egun hartan hasi zen benetako negu gorria. Neguak luzaroan igaro zuen, ordea. Gaur egun, oraindik, eguzkirik ederrenak ere negu usaina du.

Damu naiz.

# POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Infernua, konfiantza, mirariak, denbora eta faltan

Leire Iragorri Litago
Oiartxo batxillergo ikastola
Errenteria

## *INFERNUA*

Bekataria, bekataria.
Zure begietan galdu den bekataria,
zure ezpainak dastatu dituen bekataria,
zure bihotzean bizi nahi duen bekataria,
zure suan erre den aingerua.

Deabrua, deabrua.
Zu eta zure ametsak,
zu eta zu inguratzen zaituen udazken usaina,
infernura gustura eraman nauten zure eskuak,
zure begietan ikusi dudan odolezko eguzkia.

Bekataria eta deabrua, deabrua eta bekataria.
Nor da benetako erruduna?
Zu zara, zure hitz goxo eta gorriekin?
Edo ni naiz, zure eskutik gustura infernura jaitsi dena?
Nor da erruduna biak elkartuta bat egin garenean?
Zu non hasi eta ni non bukatu jakin ezin denean?
Sutan, barrezka, bi arima bat bihurtu direnean?

Nor da istorio honetan gaiztoa?
Infernuan libreki bizi garen gu?
Edo gu banandu nahi gaituzten aingeru zuriak?

## *KONFIANTZA*

Konfiantza, min guztien iturria.
Zenbat aukera eman ditugu?
Zenbat malko atxilotu ditugu gure begietan?
Zenbat min jaso dugu maite duguna salbatzekotan?
Zenbat aldiz erre dute gure konfiantza gure sudurren aurrean?
Zenbat aldiz barre egin dute gure bihotzaren gainean?
Eta merezi du? Merezi du sufrimenduak?
Gela ilun batean egotea beste batek argia ikus dezan?
Zulo batean harrapatuta geratzea beste baten iluntasunagatik?
Zenbat aldiz jokatu behar dugu dena
beste aldera begiratzen duen bele batengatik?
Zenbat eraso jasan behar ditugu gure argia itzali arte?
Nazkatu eta zu eta ni lotzen gaituen haria moztu arte?
Botoi bat sakatu eta izan garen guztia erre arte?

## *MIRARIAK*

"Mirariak ez dira existitzen".
Denok entzundako, sinistutako esaldia.
Egia den esaldia?

Agian ez dugu ura ardo bihurtzen,
baina alaitu dezakegu norbaiten begirada irribarre batekin.
Agian ez gara hildako bat berriz pizteko gai,
baina loratu dezakegu bizi berri eta txiki bat.
Agian ez dugu aingeru bat ikusi,
baina ikusi izan dugu haur txiki bat inguratzen duen argia.
Agian ez dugu Jainkoarekin elkarrizketarik izan,
baina denok izan dugu, norbaitekin, elkarrizketa berezi hura.

"Mirariak ez dira existitzen".
Gezurra. Mirariak existitzen dira.
Ni, zu, lagunak, begietan irria,
denak gara mirari txikiak,
bizitza den miraria osatzen dugun su txinparta txikiak,
jakin gabe norbaiten bizitza argitzeko gai garen txinparta txikiak.
Eta, laguna, hori da mundu honetako mirariirik handiena,
ezer jakin gabe norbaiten eguna guztiz aldatzeko boterea.

## *DENBORA*

Begiak ireki, jaio berri baten negarra,
begiak itxi, “Lasai, maitea”.
Begiak ireki, ikastolako lehen eguna,
begiak itxi, “Ama, beldurra”.
Begiak ireki, azterketak eta Unibertsitatea,
begiak itxi, “Lortu dut!”.
Begiak ireki, lehen musua,
begiak itxi, kanpaia hotsak.
Begiak ireki, ume bat zainduz,
begiak itxi, “Lasai, maitea”.
Begiak ireki, “Ama, ez izan beldur”,
begiak itxi, lore beltz bat hegan.
Begiak ireki, lana, haurrak,
begiak itxi, “Amona?”.
Begiak ireki, azken musua,
begiak itxi, negar hotsak.

## *FALTAN*

Faltan sumatzen ditut bere irribarrea,
bere indarra, bere borroka gogoa,
bere inozentzia zuria, bere amets gozoak,
bere maitasuna aurkitzeko gogo zoroa,
bera inguratzen zuten argi izpiak,
bere buruak asmatutako milaka munduak,
desberdina izateko gogo bizia,
arazorik ez zuen izar txikia,
mundua argitu bakarrik nahi zuen ipurtargia,
mantangorri batek bezala mundua ikusi nahi zuena,
iluntasunean ezkutatzen ziren munstroen berri ez zuen zal-
duna,
izarrik gabeko gaurik ez zuen ilargia…

Faltan sentitzen dut izan nintzen ume ezjakina.

# Habana, beste herria

Mattin Aranburu Guridi
J. M. Iparragirre institutua
Urretxu

Habana, beste herria

*Habanera isil baten doinua,*
*zizaka,*
*eraikin grisen zirrikituetatik,*
*hiria apurka hartuz,*
*inbadituz,*
*traje zarpaildun gizonek,*
*presazko joan-etorrian,*
*zoru grisaren kontra dagiten klaka,*
*hitzik gabeko kalaka motela,*
*pixkanaka estaliz.*

*Izparringi alboratuek,*
*orri tolestuek erdizka erakusten dituzten titularrek,*
*oihuka,*
*gerla soilik aipatzen dute.*

*Puru kontsumituen punta jostariek,*
*taberna zulo ilunean,*
*pianoaren notak zuzentzen dituzte,*
*ke zirimola artean.*
*Ezpain arrosa finek,*
*xuxurlaka,*
*amodio kantuak,*

*kedarrean suspendituta uzten dituzte,*
*hitz arrotzak.*

*Lokartutako eguzkiak,*
*izar gorridun afixak ilundu ditu,*
*horma biluzietako hitzak lausotu.*
*Eta gau epela,*
*izoztu da,*
*denbora den lakua jelatu da,*
*izarren labanek,*
*irristaka eginen dituzten irudiak,*
*besterik ez da berri izango,*
*biharko Habana jaioberrian.*

Aire gorriak,
geldo,
agur egingo dit,
hiriaren esentziak,
bosgarren pisuaren parean,
hari fin mehez zintzilik,
molekula grisaxkek,
adio.

Jolastuko dut,
farolen argi okerrekin,

bi malkok distortsionatutako irudi bihurrekin,
irudi bihurriekin.

Tanta gaziak eroriko dira,
irristaka,
metroaren lurrun oihukariarekin bat egin arte,
eta eni deituko didate,
fiu-ka gonbit egingo.

Hiria arnastuko dut.
Hiriak arnastuko nau.

Behean,
desordenak josiak,
inurrien oin hotsak,
baketen eta larruaren arteko gudarekin,
atabalarekin nahastuko ditut.
Arkupeko fandango arinekin,
arin-arinekin,
eta euri egunetako isiltasun berritsuarekin.
Eskupilotaren “tok-tik”-arekin,
jaioterriaren bihotz taupadekin nahastuko ditut.

Forma ilun bat naiz,
soslai lauso bat,
zementuaren gatibu,
askatasunean preso.

Marinela naiz,
marinel zaharra,
Ginebra erreginaren eraginpean,
nire bizitza ginebraren uhinen sonean dabil,
tarteka gora,
azkenaldian behera,
beheregi.

Ginebra irentsi dut,
Ginebrak irentsi nau.

Gonbito egin dut.

# Heriotza(k)

Peru Iparragirre Albisu
Oteiza lizeo politeknikoa
Zarautz

Hitzak
bitsa dakarren
olatuak
dakartza
eraman
bitza
atzera
-hala biz!-
korronteak
itsaspeko
kupula gotorretan
birrindu daitezen.
Itxi bakean itsasbehera.

**b)**
Eguzki
egun huts
egun argi
beroki
beharrik gabe
atera zara
kalera

ezker
eskuin

begira
igaro duzu
karrika
arrisku zantzurik gabe
aurrera
ezustean
ordea
ziplo erori zara
hara, hil zara
autorik ez zetorren
baina
bihotzak badaki
noiz buka.
Itxi bakean gorpua.

**d)**

Gauetik dator bizia
zeruan itzala
bertan datza guztia
hau, bestea
besta, onena

Gauetik dator bizia
bertatik eguna
negarretik euria

itzala dator
betor, betor.

Itxi bakean katabuta.

**e)**

Lainoak fite doaz
ihesi iduri
kea gora ihes
sua heriotza
zerua laino baino
asaldatu, zakar, itsaso.
Ixi bakean ekaitza.

**f)**

Lurra geuk ere
dugu zapaltzen
beste askoren
[boten]
aztarnen artean
geureak ere ba omen.
Itxi bakean lurra.

**g)**

Utzi begiari nahi duena kausitzen.
Jaioko da beste haur bat
ilargiaren argitan.
Eguzkiak eman dio gonari bira
haize zenak ileak
aurpegian barreiatu.

Udara da, begiak
bihotz guztiak ditu hausten.
Gasteizko hondartzetan
iragan izotzen aztarnak
mutu.

Inora pausoa bota erabaki aurretik
erori dira edifizioak
hautsak ditu estali zeruak.

Udara zena bilakatu da
ustekabean
kasik negu.
biluzirik daudenekin bat
mundua dar-dar.
Itxi bakean leihoa.

# Tik-tak

Irati Ricon Santoyo
Beasain institutua
Beasain

Tik-tak, tik-tak
Denbora pasa
Tik-tak, tik-tak
Orratzek bira
Tik-tak, tik-tak
Bihotz taupadak
Tik-tak, tik-tak
Orri zuria

Tik-tak, tik-tak
Hatzen artean
Tik-tak, tik-tak
Hareak ihes
Tik-tak, tik-tak
Bizitzak hegan
Tik-tak, tik-tak
Zapelatz bizkor

Tik-tak, tik-tak
Begi keinuak
Tik-tak, tik-tak
Arkatza prest
Tik-tak, tik-tak
Gogoan ezer

Tik-tak, tik-tak
Papera biluzik

Tik-tak, tik-tak
Denbora agortu
Tik-tak, tik-tak
Orbainik ez
Tik-tak, tik-tak
Arkatza hilik
Tik-tak, tik-tak
Bizirik ez

Tik-tak, tik-tak
Eguzkiak ibili
Tik-tak, tik-tak
Zeru-mugan agur
Tik-tak, tik-tak
Iluntasuna etorri
Tik-tak, tik-tak
Gaua lagun

Tik-tak, tik-tak
Izarrak zelatan
Tik-tak, tik-tak
Ilargia begira

Tik-tak, tik-tak
Irakurtzeko prest
Tik-tak, tik-tak
Papera garbi

Tik-tak, tik-tak
Idatzi nahia
Tik-tak, tik-tak
Ase gabea
Tik-tak, tik-tak
Adierazi gura
Tik-tak, tik-tak
Azkeneko aldiz

Tik-tak, tik-tak
Zer idatzi?
Tik-tak, tik-tak
Zer eratu?
Tik-tak, tik-tak
Zer irudi?
Tik-tak, tik-tak
Zer pentsamendu?

Tik-tak, tik-tak
Barrutik hilik

Tik-tak, tik-tak
Bihotza hutsik
Tik-tak, tik-tak
Ideiarik ez
Tik-tak, tik-tak
Arima galdurik

Tik-tak, tik-tak
Nora joan zara?
Tik-tak, tik-tak
Non dago nintzena?
Tik-tak, tik-tak
Eta nire ideiak?
Tik-tak, tik-tak
Galdu egin naiz

Tik-tak, tik-tak
Ez naiz ni
Tik-tak, tik-tak
Ez naiz ezer
Tik-tak, tik-tak
Oskol hutsa
Tik-tak, tik-tak
Barrutik hotza

Tik-tak, tik-tak
Ordua iritsi da
Tik-tak, tik-tak
Agur esan
Tik-tak, tik-tak
Arkatza askatu
Tik-tak, tik-tak
Begiak itxi

Tik-tak, tik-tak
Mundua utzita
Tik-tak, tik-tak
Bestaldean
Tik-tak, tik-tak
Arimarekin bat
Tik-tak, tik-tak
Idatz dezaket

# Eszeptiko

Iñigo Perez Mujika
Beasain institutua
Beasain

Eta aljebrako koadernoan
ene ezker eskuaz
idatzi nituen poemak
ulertu nahian,
eguzkiak kontrako
hemisferioan soilik
du argitzen.
Eskuindarra bainaiz.
Eta ez saia zuku
politikorik ateratzen.

Aurreiritzi eta aurreiritziak…
Jateko ogia,
arnasteko airea bezainbeste,
Celayak poesia adina
behar ditugu
supituan sortzen diren
pentsamenduak.

Auskalo zein motatako
determinismo baten
denborarekiko
marruskadura.

Eta neuri, eszeptiko;
egia unibertsalak
sinesteke ditudala,
datozkit pinotxo sudurluzeak
ideologiak aldarrika.

Eta ez erreka
ez kontrakorronte.
Azken finean errefusera joanen gara
noizbait.
Denak lizun bera bihurtuz.
Material hoberenak soilik birziklatuaz:
Gepetoren egiak,
ideologia guztietako
pentsaera aurrenekoak
on bezain inuzente.

Beste kasuetan birziklapena ez dela bidea deritzot.
Lehengo egunean ene auzoan
ia bortxatu zuten dozena bete
udaberri ere ez dituen lore bat.
Honelako hondakin sozialek
zabortegian segituan behar luketelako.

## MUNDUA ENE MODURA

Jaio ginen gizakiok
Behinola
bilakatuaz lurra gure
ametsetako.
Eratu ziren gure
inguruan animaliak,
landareak…
sortu genituen zibilizazioak,
gizartea,
jainko eta jainkosak, geure irudiko.
Eta filosofoak.

Ez zen nahikoa.
Guk zerua nahi genuen.
Ortzi-mugatik jauzi
huts batera suertatzen baitzitzaigun.
Grabitatea sortu zen,
hankak lurrean manten genitzan.

Eta duela ordubete
9’8 newtoneko indarrari ere
gintzaizkion gailendu
Yuri Gagarinekin.

Konturatuaz, geratuak
ginela helburu gabeak,
sortutako guztia
ginen suntsitzen hasi.
Animaliak salokeriarako
erabili genituen jainkoak
haserraraziz;
ateo bihurtu ginen.
Landareak udaberrian inausi.
Zibilizazioaren oinarriak
usteldu egin ziren.
Gizartea:
indibidualismo kolektiboa.
Eta filosofoak…
haien lana ukatu genuen.

Eta otuz gero: ez,
ez naiz eszeptiko
ez pentsatzeko
aitzakia bikaina delako.

Ez ezker ez eskuin.
Aurrerantz da bidea.

# POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Odol

Martin Kortabarria Larrea
La Salle-San Jose ikastetxea
Beasain

ODOL

Odol, samin.
Gerrate, herio.
Eta malkoak.

Odol berria, odol lehorraren gainetik.
Behin eta berriz, harri kozkor berberarekin, estropezu eginez.
Gero eta handiago eta gogorrago den harri kozkorrarekin.

Baliteke, egunen batean,
guk harri kozkorrarekin estropezu egin ordez,
harri kozkorrak gurekin estropezu egitea;
lurreko odol lehorra, gure odol berriaz ezkutatuz.

Baliteke, egunen batean,
isuritako odoletan itotzea;
gure odolean itotzea.

Eta egun hura iritsita ere,
odol bero honek,
handinahizko odol honek,
aurrera egingo du,
aurrean ezer topa ezean.

Horregatik, gonbidatu nahi zintuzket.
Denok gonbidatu beharko ginateke,
Eta, zergatik ez?
Eskuak zabaldurik
Gure akatsen erantzule izanez,
hatzak jada gorriz margotuak ditugula
ohartu.
Baina ohartu.
Nahikoa izan beharko luke

## BIZITZAREN BEHATOKITIK

Bizitzaren behatoki diren
bi begi hauetan
amilduta nago.
Bizitzaren behatoki diren
nire bi begietan.

Bizitzaren behatokitik
argi entzun dezaket
nire oinek, akatsen lohia zapaltzean,
egiten duten zarata.

Bizitzaren behatokitik
argi ikus dezaket
naizen gezurra,
naizen izaki zabarra.

Bizitzaren behatokian
argi sentitzen dut
egunez jasan ezin,
eta gauez amesten dudana.

Bizitzaren behatokiko ateak
itxi nahiko nituzke.
Gezurretan amildu.
Ezkutatu.

Baina ezin dut:
    Egunsentia da oraindik.

# Ispiluari begira

Maddi Etxeberria Otaegi
Aita Larramendi ikastola
Andoain

98ko belaunaldiaren
ehungarren urteurrenaren hastapenetan sortua,
neguko egun batez,
Danimarkako erreginak lehen aldiz
bere jaialdira bikote homosexual bat
gonbidatu zuen batean.
Urtarrilaren amaiera,
negua, hotza, bustia, hezea...
Anestesia, zesarea, puntu batzuk...
Asteazkena.
00:25.

Arkume beltxarana, gurasoek babestua
eta lagunek maitatua.
Ezkutuan milaka malko botea.
Panpinekin berandu arte jolastua,
Anai-arreba
bat izango zuen itxaropenaz.

Ai, neska gaixoa...
Negar malkotan ito ez zenean…
Baina bizirik darrai, zailtasunak gaindituz, eta zorion apurrak ospatuz.
Oztopoak gaindituz, urteak betetzen joan zen.

3, 4, 5…, 9, 10, 11…

Ene bada!
